

Mairiren egoitzaren inaugurazioa - "Zubieta XXI" Itarte Etxean
Igor Urrestarazu aske - Zinegotzi berriak Zumarragan - Nekane Lasa
eta Maitane Andueza txapeldunak - Bi herritar gazte Realera
Zuberoaren aldeko ekimena - Zumarragako danborrada Fuengirolan
Kubatarrei dirulaguntza - Alokairuzko etxebizitzaren zozketa
Saskibaloilari gazteak Urretxun - Beasain-Durango abian berriro
ButaK 21 zinekluba - Lolo Sainz Urretxun - Irrintziren urteurrena
Aulki berriak Antion - Mendi martxa arrakastatsua - Joseba Garmendia
gartzelan - Ismael Berasategik gartzelatik ihes - Alemaniarrak
Urretxun - Pello Lizarralderen liburu berria - Kudeaketa batzordea
Zumarragan - Goierriren 50. urteurrena - Merkatarien Astea
Gazteleku berriaren inaugurazioa - Bidegorrian konponketak
Gainzuriko obrak - Goiargiren urteurrena - Turismorako dirulaguntza
Jon Plazaolak bakarrizketa lehiaketa irabazi - Komunismo mendian
Lurrako dantzariak Polonian - Afari Kantuak liburua - ZSKren diskoa
Realetik Barakaldora - Parrokia berria Zumarragan - Aitor Gonzalez
Vueltan garaile - Torres garaile Goierriko Itzulian - Kilometroak 2002
Abesbatza Lehiaketa - Etxeberrin obrak - Laja eta Mikelen diskoa
Buzkantza lehiaketako saria Ordiziara - "Musti"ren aldeko ekimena
Josemari Alemanen erakusketa - Agrymin lantegiaren urteurrena
Pabiloi berriak Zumarragan - Aldaketaren 25. urteurrena
Foru Aldundiaren dirulaguntza - Gazte Lokala - Ostadarrentzat saria...

Urteak askorako ematen du

Aurrea hartuta



Izena emateko epea: otsailaren 3tik 14ra
Informazio bilerak: otsailaren 6an,
15:00etan edo 18:30etan, Ikastolan bertan
Tелефonoa: 943 72 00 26

4. URTARRILA
6. OTSAILA
8. MARTXOA
Iritziz iritzi: Jonmikel Intsausti
10. APIRILA
Iritziz iritzi: Ibon Garmendia
12. MAIATZA
14. EKAINA
16. Iritziz iritzi: Joxean Alustiza
Iritziz iritzi: Andoni Salamero
18. UZTAILA
Iritziz iritzi: "Kanpaitxo"
20. ABUZTUA
Iritziz iritzi: Gorka Azkarate
22. IRAILA
24. URRIA
Iritziz iritzi: Martin Aranburu
26. AZAROA
Iritziz iritzi: Gorka Quevedo
28. ABENDUA
Iritziz iritzi: Josu Aztiria
30. Iritziz iritzi: Gotzon Aranburu

Urtean zehar Urretxu eta Zumarragan jazotako gertakizunak bilduko zituen urtekaria prestatzea erabaki genuenean, ez genuen uste gure bi herriotan urtebete hainbeste gauza gerta zitekeenik. Lan gogorra izan da Otamotzen eta gainontzeko komunikabideetan atera diren albisteak biltzea, azpimarragarrienak iruditu zaizkigunak aukeratzea eta labur-labur idaztea. Azkenean, hileko laupabost albiste aukeratu ditugu eta ahal izan dugun erarik erakargarrienen txertatu ditugu. Badakigu zuetako bakoitzak aukeraketa ezberdina egingo zenuketela eta, beharbada, zuentzat garrantzitsuak izan diren gertakizun batzuk kanpoan utzi ditugula.

Hori dela eta, gure irakurle batzuei euren urteko balantzea egiteko eskatu diegu. Beti bezala, gure kolaboratzaileek primeran erantzun dute. Beraien lanari esker, urtekari hau Urretxu eta Zumarragan 2002an gertatu dena erakusle ona dela uste dugu. Eskerrik asko guztiei!



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Mairiren egoitzaren inaugurazioa

Urtarrilaren 29an Mairiren lokal berriaren inaugurazioa izan zen. Bertan, Mairi Emakumeen Elkarteko bazkideekin batera, Aitor Gabilondo eta Pello Gonzalez alkateak eta Emakundeko zuzendaria den Txaro Arteaga izan ziren.

Mairiren lokal berria Ederrena Pilotalekuko frontisaren atzean dago, lehen solairuan. Emakumeen elkarteko bazkideak aspalditik zebiltzan lokal berri hau lortu nahian eta, azkenean, lortu dute. Egoitza handi honetan, ekintza ezberdinak aldi berean burutzeko aukera dute.



“Zubieta XXI” Itarte Etxean izan zen

Urtarrilaren 25etik otsailaren 3ra, Realak antolatutako “Zubieta XXI” erakusketa ikusgai izan zen Itarte Etxean. Inaugurazio ekitaldian, Aitor Gabilondo alkatearekin batera, Xabier Bengoetxea (Realeko jokalaria ohia eta egun lehendakari ordea), Alberto Alejandro (Realeko jokalaria zumarratarra) eta Mikel Etxeberria, Francis Tamayo eta Joaquin Berberia (kontseilariak) izan ziren.

Erakusketa honetako paneletan, jada abian den “Zubieta XXI” egitasmoa zertan datzan ikusteko aukera izan zen. Realak, egitasmo honen bidez, Zubieta instalakuntza eta teknologia modernoak izango dituen futbol eskola bilakatu nahi du.

Iparragirre Sariak 2001

Urtarrilaren 11an 2001eko Iparragirre Sarien banaketa egin zen Zumarragako udaletxeko areto nagusian. Bertan, Felix Maraña eta Jose Luis Padron idazleak eta epaimahaikideak izan ziren. Biek aurkeztutako lanen maila goraiatu zuten.

Euskarazko narratiba sailean, Zigor Etxaniz oriotarra izan zen irabazle, “Treguarik gabe” ipuinarekin. Euskarazko poesia sailean, berriz, Maria Ines Goikoetxea donostiarra izan zen irabazlea, “Berdea eta grixa gaeztaturik itsasoaren ardoran” lanarekin.

Gaztelaniazko lanei dagokienez, narratiba alorrean, Manutel Terrin albatetarra izan zen irabazlea eta poesia lanetan, Sergio Oiarzabal bilbotarra “Por mucho que quiera el misterio” lanarekin.

Lau irabazleek 100.000 pezeta, Iparragirrerren estatua txiki bat eta euren lanak biltzen dituzten liburuaren 20 ale jaso zituzten.



Igor Urrestarazu aske utzi zuten

2001eko abenduaren 17an, Polizia Nazionalak Urretxu eta Zumarragako hainbat etxebizitza eta lokal miatu zituen, ihes egindako Ainhoa Barbarin, Ismael Berasategi eta Xabier Zabalo herritarrak ETako kide legalak zirela eta talde ibiltaria osatzen zutela zabaldu zuen eta zazpi herritar atxilotu zituen. Hauei, ustezko hiru ETako kideei laguntzea leporatu zien. Hauen errugabetasuna agerian gelditu zen eta urtarrilaren 3an atxiloturik jarraitzen zuen bakarra, Igor Urrestarazu, askatu zuten. Otsaila hasieran, polizia frantziarrak Xabier Zabalo eta Ainhoa Barbarin atxilotu zituen.

Abenduaren 17tik aurrera, era batera edo bestera, polizia operazio haren ondorio ziren gertakari ugari eman ziren: atxilotuen errugabetasuna eta hauen askatasuna aldarrikatzeko mobilizazioak, osoko bilkura istilutsua eta EA-EAJko Usua Busca Zumarragako zinegotziaren dimisioa, besteak beste.

Zinegotzi berriak Zumarragan

Julian Arinek (EA-EAJ) eta Alberto Bilbaok (Batasuna) urtarrilean eman zuten eza-gutzera Zumarragako Udaleko zinegotzi berriak izan behar zutela. Julianek eta Albertok Usua Buscak eta Montse Tornerrek utzitako tokia hartu zuten.

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77

URRETXU

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31

ZUMARRAGA

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU



Inauteriak

Urtero bezala, giro bikaina izan zen inauterietan. Ostiraletik hasi eta astearte bitartean herritar ugari mozo-rrutu eta herriko kaleak girotu zituzten. Urretxuko tabernariek, berriz, mozorro lehiaketa antolatu zuten inauterietako asteartean. Lehiaketa honetako 450 euroko sari nagusia Mairi Emakumeen Elkarteko kideek irabazi zuten. Mairikoez egunkariez aintzineko-soinekoak egin zituzten. Lehiaketan bikoterik parte hartu ez zuenez, bikote onenari saria tribuz jantzita irten zen koadrila bati eman zioten. Hauek 300 euro jaso zituzten. Banakako mozorro onenari saria, 150 eurokoa, Mikel Lizarralde irabazi zuen. Mikel alargun alaiaz jantzi zen.

Nekane Lasa, ziklo-kross eta mountain bike txapelketa

Nekane Lasa zumarratarrek emakumeen Euskadiko ziklo-kross txapelketa irabazi zuen otsailean. Hori gutxi balitz, Nekane Euskadiko mountain bike txapelketa ere irabazi zuen eta Belgikan izan zen munduko ziklo kross txapelketan parte hartu zuen.

Nekane 20 urte besterik ez ditu eta duela hiru urte mountain bike txapelketetan parte hartzen hasi zen. Ziklo krossean, berriz, Zugaitz Aiuso bere mutil lagunaren eskutik hasi zen.



Santa Barbarako trialsin txapelketa

Otsailaren 24an Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarria den Urretxuko VI. Trialsin Lehiaketa izan zen Santa Barbaran. Bertan, nesken artean, Maitane Andueza ezkiotarra izan zen irabazlea. Garaipen honi esker, nahiz eta txapelketako lehiaketa guztiak oraindik bukatu ez ziren, Maitanek Gipuzkoako Txapelketa eskuratu zuen. 2002an, Gipuzkoako Txapelketaz gain, Euskal Herrikoa eta Espainikoa ere irabazi zituen eta Mundialean bigarren toki eskuratu zuen.



Bi herritar gazte Realera

Otsailean Urolako infantil taldeko Xabier Jorgeri Realarekin jokatzeko deitu zioten eta handik gutxira Mikel Balenziagare ere deitu zioten. Herriko bi gazte hauek eman zuten mailak Realeko arduradunak gustura utzi zituen eta denboraldi honetan talde txuri-urdinaren kadete taldean jokatzeko ari dira.

Xabier Jorge zentrala da eta atzelaria izateko nahiko azkarra. Mikel Balenziaga, berriz, aurrelaria da, ezkertiarra eta teknikoa.




Zuberoaren aldeko ekimena

Otsailaren 28an Udalbiltzak Zuberoaren alde aurrera ateratako ekimena aurkeztu zen Urretxuko kultur etxean. Aurkezpen ekitaldian ekimen honi euren babesa eskaini zioten Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako hainbat lagun ezagun izan ziren. Aurkezpenaz Gorka Igartua Goenkaleko aktore ezkiotarra, Juan Luis Aranburu musikari urretxuarra eta Asier Iriondo bertsolari legazpiarra arduratu ziren.

Zuberoaren aldeko ekimen hau Zuberoak azken urteotan bizi duen krisiari aurre egiten laguntzeko jaio zen. Izan ere, Zuberoak egoera ekonomiko larria bizi du eta populazioa behera doa. Hori guztia ikusirik, Zuberoako 35 herriek osatzen duten Herri Elkargoak Zuberoa 2010 egitasmoa sortu dute. Honen helburua, bertako nortasuna eta azpiegiturak sustatuz, hamarkada honetan 2.600 lanpostu berri sortzea da. Udalbiltzak bere babesa eskaini zion egitasmo honi. Udalbiltzaren ekimenaren asmoa, Euskal Herriko gainontzeko herritar guztion artean Zuberoa 2010 egitasmoarentzat milioi bat euro biltzea izan zen.

Zuberoa 2010 egitasmoari dirulaguntza eskaintzeko, martxoaren 31ra bitartean Urretxuko Kalerrota kalean bulegoa ireki zen. Bestalde, Udalbiltzaren Zuberoaren aldeko ekimena bultzatu zuten bailarako lagunek, hitzaldi bat ere antolatu zuten. Bertan, Joseba Garmendiak, Kontseiluko kide batek eta zuberotar batek herrialde honen egoeraren berri eman zuten.

Era berean, kanpaina honen barruan, 2001ean "Biba Xiberua" ekimenean herritarrak sortutako erakusketa eta diaporama hainbat herritan ikusgai izan zen (Bilbon, Donostian, Hondarribian, Irunen, Oretetan, Legazpin, Urretxun...), eta herritarrak guztiz eskertuak izan ziren joan ziren herri bakoitzean.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682

☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA

943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Zumarragako danborrada Fuengirolan

Zumarragako danborradako 44 kide eta Aldapa txarangako 16 Malagako Fuengirola herrira joan ziren martxoaren 14an, bertan urtero antolatzen duten "Feria Internacional de los Pueblos" delakoan parte hartuz. Bertan bizi den euskaldun talde batek urtero euskal ordezkariak gonbidatzen ditu. Talde honetako kide bat urretxuarra denez, 2001ean Lurra taldea gonbidatu zuten. Iaz danborrada bat eraman nahi zutenez, Zumarragako gonbidatu zuten.

Danborrariak frantsesez eta sukaldariz jantzita joan ziren, bi konpainia hauek baitira zaharrenak. Urtero jotzen dituzten piezez gain, Donostiako Martxa, Polka eta Retreta ere jo zituzten. Urola Garaiko herrietako turismo foiletoak eraman zituzten eta Fuengirolako alkateari Zumarragako oroigarriak eman zizkionten harrera egunean.



IRITZ IRITZ

619+469=1088

Zaila da herriaren egoerari buruzko iritzi artikulua bat idazten hastea, zaila da gai bat erabakitzea, 2002. urtean gauza asko gertatu izan denean. Gertatu diren gertakariak galbahetik pasatzearen, urtean zehar jaso izan ditugun Otamotz aldizkariaren azalak hartuko ditut, aldizkaria, txikia baina bihurria, gertatu den termometro ona dela uste dudalako. Izandako aurreko 9 azaletatik 6, erakunde edo ekintza desberdin garrantzitsuei dagozkie, hala nola, Goierri Kirol Elkartearen 50. Urteurrena, edo Urretxu-Zumarragako Iritzi Dantza Taldearen 35. Urteurrena, Gaztelekua... eta horien artean, badira Urretxu-Zumarragatik kanpo eragin handi eta zuzena izan duten bi ekintza:

Bata, Iñaki Beitiaren omenezko Iraupen Luzeko Mendi-ibilaldia, aurten VII. edizioa beteko duena eta berriz ere Urretxu-Zumarragara Euskal Herri osoko mendizale oldeak ekarriko dizkiguna...

Bestea, Urretxu-Zumarragan, ospatu dugun Gipuzkoako Ikastolen Jaia, hau da, Kilometroak 2002, eta gure herrira 125.000 euskaltzale ekarri zituena.

Horiekin batera, ez nuke 2001ean egindako Biba Xiberoa! Kultur Ekimena kanpoan utzi nahi, kariño handia diodalako iaz antolatu genuen jai erraldoi horri, Urretxu-Zumarraga eta Zuberoko zenbait biztanleren artean mugak hautsiz, eta herrian egindako lana mugaz gaindi helburu bera zuten bestelako herrietara eramanez; izan ere, ekimenenerako sortu zen erakusketa herriz herri ibili izan da eta Bilbo, Errenteria, Donostia... bezalako herriak korritu ditu.

2002ko urtean gertatu diren ekintzekin Urretxu-Zumarragan, barnera-ko zein kanporako proiektioa duten ekintza arrakastatsuak eta ondo antolatuak egiteko ikasiak garela frogatu dugu, eta Urretxu-Zumarraga ezagutarazteko eta bertako turismoa sustatzeko erreminta aberatsa dela argi geratu da.

Baina zaila da ekintza hauei guztiei segida ematea, zaila Urretxu-Zumarragan kultura eta kirolaren alde —bere esanahi zabal eta aberatsean—lan egingo duten lagunak aurkitzea, eta zaila taldeak jende berriarengan zabaltzea, talde eragile batean lanean ari den jende asko beste batean edo gehiagotan ere laguntzen ari delako. Militantzia galtzen

ari da. Eta egun, herriko kultur, kirol, aisialdi talde askok urte oro arazoak dituzte beren zuzendaritza taldeak osatzeko.

Krisian dago militantzia, eta bere krisia herri-mugimenduari iragazi dio. Gizartearen zati handi batek kultura kontsumitzen duen arren, ez du talde eragile-tan, kultura sortzen duten taldeetan parte hartu nahi... eta bitartean, kultura-taldeek askoren ustetan idealista batzuen eskutik diraute indarrak ahitzen ez diren bitartean. Hauxe duk hauxe gure destino petrala!!!

Eta ez nuke iritzi artikulua hau, izenburutzat hartu ditudan zenbaki hauek aipatu gabe amaitu nahi. Zenbaki hauek ez dira Prestige petrolontziak isuri eta herenegun eta atzo Galiziako hondartzetan jasotako fuel-olio tonak, edo herriko etxeetara loteriak ekarritako euro milioiak —ea egunen batean egia den—; zenbakiok Urretxu-Zumarragako pareta eta telefono-kabina askotan agertu diren zenbaki anonimo eta handiak dira. Eta handiak diot, zeren eta Azpeitian edo Gasteizen agertu ziren bezala, zenbakiok Urretxu-Zumarragan okupatu gabe, hutsik dauden etxebizitzetan kopurua adierazten omen dute.

Kubatarrei laguntza

Urretxuko Udala Kubako ospital bati laguntzen ari zaio. Martxoaren 7an Pello Gonzalez alkateak eta Luis Molina Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak 3.757 eurotako dirulaguntza eman zioten gobernu kubatarrek estatu espainiarrean duen ordezkariari, Willy Gonzalez. Hau ez da 2002an Urretxuko Udalak Kubarekin izan zuen elkartasun ekintza bakarra. Izan ere, dirulaguntza baten truke, Gurutze Gorriak zaharkituak zeuden bi anbulantzia eman zizkion Udalari eta honek Kubara bidali zituen.

Alokairuko etxebizitzaren zozketa

Martxoan Nekolalde kalean egin diren alokairuzko etxebizitzaren zozketa egin zen Urretxuko Udaletxean. 22 etxebizitza egin dira eta zozketan zorionekoa izan eta etxea hauetara joatea erabaki dutenak bost urtez bizi ahal izango dira bertan. Ondoren, euren egoera ekonomikoa aztertuko da eta alokairuaren prezioa igo edo jaitsiko zaie.

Saskibaloilari gazte onenak Urretxun

Martxoaren 19an kadete mailako Piriniotako Nazioarteko Saskibaloitako Txapelketako finala jokatu zuten Aldiri kiroldegian Gipuzkoako selekzioak eta Siglo XXI taldeak. Gipuzkoako selekzioan Iñigo Galdona eta Iñaki Berriotxoa urretxuarrak aritu ziren. Partida hau Goierri Kirol Elkarteak antolatu zuen bere 50. urteurrena zela eta.

IRITZIZ IRITZI

Nire kasuan ez naiz 2002. urte honek ekarri dizkidan opariez kexatuko, etxebizitza berria ekarri didalako —eta loteriarik tokatu ez zaidanez— baita hipoteka ere... eta ez naiz kexatuko pribilegiatua sentitzen naizelako, etxebizitzaren merkatuan muturra sartzeko aukera izan dudalako. Hala ere, nahiz eta Ezker Batuaren bultzadaz Eusko Jaurlaritza bera ahaleginak egiten ari den... bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta sustatzen, diru-laguntzak ematen, azken finean, merkatua mugiarazten, arazoak hortxe dirau. Izan ere, arazoa etxebizitzaren salneurrien eta etxera eramandako soldaten arteko proportzioan datza, eta gazte askok eta askok merkatu libreria pasa ezinik daude, eta ahal dutenean irteten diren babes ofizialeko etxeen zozketaren menpe egoten dira... etxebizitzaren salneurria baita beraiantzat arazoa.

Eta etxebizitzaren merkatuaren presioaren eraginez, Urretxu-Zumarragan dugun paisaia urbanoa aldatzen ari da, eta okerreana dena, ondare publikoa desagertzen ari da. Eta Urretxuko Ederrena pilotaleku zaharra gogora etorri zait, Santa Lutxi ondorengo egun gris eta lainotsu batean erauntsia eta etxebizitza

batzuek eta hipermerkatu batek ordezkaturia —Sabinaren abesti batetaz oroitzen naiz. Eta ene ustez, egun oinezkoen ingurunea izanik, Gernikako Arbola enparantza Urretxu-Zumarragako plazarik ederrena bada ere, Urretxuko ehun urteko frontoi hura oraindik gogoratzen dut bertatik igarotzen naizen bakoitzean.

Eta 2002. urtean, Zelai-Aristi Plan Estrategikoaren menpean, Zumarragan genuen frontoi publiko eta ireki luze bakarraren txanda etorri da eta frontoi luze eta ederra zena eskuzko pilotan eta ia 4 1/2-an baino jolasteko ez zaigu geratu. Hemendik aurrera, ez dut gehiago bertan berriz ikusiko Benito, bere pilotakada luze horiek frontoiaren atzetatik maisutasunez frontisera eramaten, ezin izango dut gehiagotan ekaineko arratsalde goxoetan, Zelai-Aristiko frontoiaren pretilean eseri eta Zumarragako jaietako Paleta Lehiaketaz gozatu pakete bat pipa erosi eta jaten ari naizen bitartean. Oraingoan Zumarragako Zelai-Aristi pilotalekuari tokatu zaio eta etxebizitzaren merkatuaren presioak joa, txikiagoa egin zaigu.

Ez dut uste Urretxu-Zumarragako etxebizitzaren arazoa soilik

etxebizitza zaharrak bota eta orubeen gainean etxebizitza berriak eraikitzean dagoenik, ez eta etxebizitza zaharrak okupatzen konponduko denik ere. Berrizetik eta eraberrizetik ere dator oreka, horrela gordetzen da herri baten ondarea, berritzen eta eraberritzen ematen diegu ondorengoei guri aurrekoek emandakoa.

Merkatuaren presiopean, auzo berriak sortzen ari dira, larre eta zelaia zena porlanez eta asfaltoz estaltzen ari dira, edifikagarria ez zena edifikagarria izendatzen, ondare publikoa aldarazten, promotoreek etxe-maila bat gehiago eraikitze baimena eskatzen —eta ez badute, baimenaren zain itxoiten... eta bitartean, 1088 etxe hotz Urretxu-Zumarragan; eta independizatu nahian eta etxebizitzaren merkatuan sartu ezinik, gazteak gurasoen etxeko berotasunean. Ai, gurasoengatik ez balitz!!!

Jonmikel Intsausti
Ostadar Mendi Taldeko kidea


ButaK 21 zineklubaren sorrera

Apirilaren 12an, ButaK 21 izena hartu duen Urretxu-Zumarragako zineklubak bere lehenengo emanaldia eskaini zuen. Zineklubaren estreinaldia oso berezia izan zen. Izan ere, duela 15 bat urte Zelai-Ariztin egindako Donostiako Zinemaldiaren parodia bat ikusteko aukera izan zen. ButaK 21 zineklubak, uztaila bitartean, hamabostero filme bat eskaini zuen. Lehenengo ziklo hau Donostiako Zinemalditik pasa diren sei filmek osatu zuten. Zineklub emanaldiak udazkenean itzuli ziren. Bigarren zikloan, "Munduari itzulia 80 egunetan" izenburukoa, kontinente guztieta-ko filmeak izan dira ikusgai.

Beasain-Durango abian berriro ere

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailak Zumarragako liburutegiko sarreran Ormaiztegi-Zumarraga autobideari buruzko erakusketa jarri zuen apirila erdialdean. Erakusketa hau hil bukaera bitartean izan zen bertan. Autobide honen lanak ekainean hasi ziren eta bi urteko epean amaitzea espero da.

Ormaiztegi-Zumarraga autobidearen obra Mariezkurrena enpresari esleitu zaio 38.546.958 eurotan. Mariezkurrena 5,5 kilometroko luzera duen autobidea egiten ari da. Autobide honek, hiru bidezubi izango ditu, bi gain pasabide, bi behe pasabide eta zortzi eustorma.



IRITZIZ IRITZI

Urte gazi-gozoa

2002. urtea ere joan zaigu eta hausnar-tzen aritu eta gero ez zait iruditzen gure oroimenetik berehala joango den urtea izango denik. Garbi dago urte bat ez dagoela lerro hauetan laburtzerik baina ahalegin txiki bat egingo dut azken 12 hilabeteetan jaso ditudan sentsazioak nola hala irakurleari helarazteko.

XXI. mendea estreinatu berri dugun honetan oraindik konforme ez dagoen herria garelako frogatu dugu eta gauzak ez daudela behar bezain ondo nabaria da, bestela ez litzateke horrelako iskanbilarik izango politikagintzan, ekologia arloan, euskararen inguruan, lan munduan...

Pasa den urteari zapore gazi-

gozoa hartu diot, bi zapore hauetatik gaziena eta gozoena dastatu ahal izan dugularik, baina honen guztiaren aurrean gizarteak jakinarazi du ez dagoela guztia irensteko prest eta, hori dela eta, kalean ez ohiko bizitasuna izan da.

Gaziena, gehienetan bezala, Euskal Herriak bizi duen gataska dela eta etorri zitzaigun, gure herria gogor astindu zuelarik 2002.ko lehen sei hilabeteetan. Garai honetan Urretxu eta Zumarraga herri izenak ia astero aipatzen ziren komunikabideetan eta ez turismo gune erakargarria zela esanez. Urtea joan eta herriko beste 7 etxe gehiagok norbait falta izan dute azken gabonetan. Zumarragako udalera halako sasi normaltasun bat iritsi zen baina egoera berria ere ez zen normala, Urretxukoan, berriz, zinegotzi bat falta da oraindik zergatiaren arrazoirik

eman ez bada ere.

Herriko faxista ezagun batek beste urte batez ere eman du zeresana bolada batean eta herriak kalera irten beharra izan du.

Honela itsasoko ur gazia belzten ari den honetan nire sentsazio gaziak mikaztu eta barruak belztu eta usteldu baino lehen utzi egingo dut ni gozozalea izan bainaiz betidanik.

Sentsazio gozoena gaztedi, euskara eta kultur arloetan dastatu ahal izan direla uste dut. Gazteentzako aurtengoa egoitza berrien irekieren urtea izan da. Gaztelekuak 4 urteko etenaldiaren ondoren eraikuntza berriaren ateak ireki ditu eta orain bada toki bat non gazteek beren burua baliagarri ikus dezaketen eta beren asmoak aurrera eraman ditzaketen. Honela bigarren egoitza gazte txokoa da



Lolo Sainz Urretxun

Lolo Sainz eta Josean Aldalur saskibaloietan entrenatzaileek Goierri taldearen entrenamendua zuzendu zuten apirilaren 12an, Urretxuko Aldiri Kiroldegian. "Clinic" izenez ezagutzen den saioa, Goierri K.E.-k bere 50. urteurrena ospatzeko antolatu zuen ekitaldietako bat izan zen. Saskibaloietan zaletuek, besteak beste, estatu espainiarreko hautatzailea eta Askatuak taldeko entrenatzailea izan diren Lolo Sainzen eta Josean Aldalurren lana eta gomendioak adi-adi jarraitu zituzten. Entrenamenduaren ondoren, Goierri Kirol Elkarteko arduradunek, zaletuek eta bi entrenatzaileek Txirimiri elkartearen afaldu zuten.

Irrintziren urteurrena

Udaberri bezala, Urretxu-Zumarragako Irrintzi Dantza Taldeak dantza jaialdia eskaini zuen Zumarragako Beloki pilotalekuan. Baina, apirilaren 27ko jaialdia oso berezia izan zen. Izan ere, Irrintzik 2002an 35 urte bete ditu. Hori dela eta, urte hauetan guztietan dantza taldean ibili diren lagunak gonbidatu zituzten jaialdian parte har zezaten.

Irrintziren sorrera La Salle eskolaren inguruan eman zen. Hasierako talde hartan, ikastetxean bezala, mutilak soilik aritzen ziren, baina denbora gutxira neskak elkartu zitzaizkien. Garai haietan, zailtasun nagusiak bi ziren: dirua lortzea eta inguruko herrietara ateratzeko garraioa lortzea. Egun, alderantziz gertatzen da: dirua erraz lortzen da, baina jendea dantza taldeetara (eta gainontzeko elkarteetara) erakartzea geroz eta zailagoa da.

Dena den, Irrintzikoak beti taldeko giroa mantentzen saiatu dira eta honetan datza taldearen indarra. Honi esker, Irrintzik urte hauetan guztietan dantzari kopuru altua izatea lortu du. Egun 120 lagun inguruk osatzen dute dantza taldea. Hauetatik 35 heldun taldean ari dira eta, gainontzekoak, haurren sei taldeetan.

IRITZ IRTZI

eta hau Gaztelekuaren iturri izan daiteke gerora begira, hori bai, iturri fresko eta euskaltzalea.

2002an butaK 21 zinekluba abian jarri zen eta serio hasi gainera bertako partaideak, Goiargik bere 20. urteurrena ederki ospatu zuen, Goierri kirol elkarteak bere 50. urteurrena bezalaxe. 2002ko herriko izarra Kilometroak 2002aren zurrunbiloa izan zen eta honek bolondres lan eskerga, dirua eta jendetza izugarria ekartzeaz gain milaka turismo triptikok baina lan handiagoa egin zuen eta urrutiko zein gertuko gure bizilagunek ezagutu zuten gure herria orohar. Seguru nago egun horretatik aurrera batzuen aurreiritziak aldatu zirela.

Kultur arloan fruitu batzuk ere jaso ditugu, gutxienez 3 liburu argitara eman dira. Lehenik José Luis Padrón-en

Zure bila itsasoa bidaliko dut poesia liburu ederra, bigarrenik Zintzo Mintzoren bidez ateratako Afari Kantuak liburuak praktikoa eta azkenik Zum-ekoek atera duten Mende bat iruditzen liburuaren 3. alea. Musikan, ordea, Spezial Guest-ek Gazte Algararen bidez plazaratu zuen beren azken diska, Gorka Hermosak Iluna bar proiektua aurrera eramanez Itxaroten diska atera berri du, Zuhaitzaren Soinua Kolektiboak taldearen izen bereko diska, eta Mikel Alustizak Lajarekin batera Eguzki begi diska. Gutxi iruditzen al zai-zue?

Honela bi zapoak ezin hobeto nahastu zituen ekitaldi bat nahiko nuke ekarri gogora, hau da, Juan Mari "Musti" Mujikaren alde antolatu zen futbol partida. Arrazoia gazia da baina herriak emandako erantzuna gozoa eta gogoangarria,

orduan eman genuen gure herriaren benetako irudi solidarioa.

Bota berri ditudan denak amankomunean zerbait badute taldekakoa edota jendearen partehartze masiboa izan dutela izan da eta hori benetan herri honen eta herritarren geroa interesatzen zaigulako izan da.

2003.a hasi berria denez garai hauetan badakit proiektu berriak badirela martxan eta aurrekoa gainditzea dutela helburu. Honela bada garai hauetan egiten den bezala desio pare bat eskatuko ditut, hau da, gazia gozotzea eta gozoaz gozatzea. Hala bedi!

Ibon Garmendia
Musikaria

Antion aulki berriak

Antioko Baselizaren Lagunak elkartekoez 2002an eliza barruan hainbat aldaketa bultzatu dituzte, hauen artean garrantzitsuena eserlekuen aldaketa izan da. Ekainetik aurrera, baselizaren izaerarekin bat datozen haritzez eginiko aulki sendoak daude Antion. Maiatzean aulki berrien inaugurazio ekitaldia egin zen. Bertan, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta udal ordezkariak izan ziren.



Garmendia eta Berasategi atxilotuak

Apirila bukaeran eta maiatzea erdialdean Joseba Garmendia eta Ismael Berasategi urretxuarrak atxilotu zituzten polizi espainiarrek eta frantziarrek. Joseba Garmendia Urretxuko zinegotzia apirilaren 29an atxilotu zuen polizi espainiarrek. Hasiera batean Soto del Realera eramane zuten eta, ondoren, Aranjuezeko espetxera. Josebari ETaren finantziario sarearen partaide izatea eta dirua zuritzea leporatzen diote. Josebak bere aurka ezer ez zutela eta ondoren eman zen Batasunaren ilegalizazioa prestatzeko kanpaina hutsa zela esan zuen. Joseba oraindik espetxean dago.

Ismael Berasategi maiatzaren 15ean atxilotu zuten Frantzian. Atxilotetaren unean poliziei aurre egin zien eta epailearen aurrean aurpegian ubeldurak zituela azaldu zen. Hori dela eta, gaizkile talde bateko kidea izateaz eta auto lapurretaz gain, autoritateari erresistentzia ere leporatu zioten Frantzian. Espainian, berriz, Ainhoa Barbarin eta Xabier Zabalo herritarrekin batera Behorburu komandoko kidea izatea eta hainbat bonba-auto jartzea leporatzen diote.

Ismael Paristik gertu dagoen La Santé espetxean sartu zuten, baina ez zuen denbora luzea eman bertan. Abuztuan ihes egin zuen, Jose Antonio anaiak haren lekua hartuz. Jose Antonio Berasategik berak ohartarazi zien gartzelariei ez zela Ismael eta ziegan egon behar zuena ihes eginga zela.

Mendi martxa

Eguraldi bikaina lagun, 693 mendizalek parte hartu zuten Iñaki Beitiaren omenezko mendi martxan. Ibilbide luzean 253 mendizalek parte hartu zuten eta laburrean 418k.

Hamaika eta erdiak aldera, ibilbide laburra egin ten lehenengoa izan zen mendizalea heldu zen Areizaga-Kalebarren enparantzara. Hamar minutu beranduago, ibilbide luzea betetzen lehenengoa izan zena heldu zen. Ibilbide laburra egin zutenen batzbesteko denbora 6 ordukoa izan zen. Ibilbide luzea egin zutenen artekoa, berriz, 9 ordukoa.



FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

La Previsora Bilbaina, S.A.

Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

2002ko urtekaria



Alemaniarrek Urretxun

Urretxurekin anaituta dagoen Schwazenbruck herriko hainbat ordezkari herrian izan ziren maiatzean. Hilaren 10ean prentsaurrekoa eskaini zuten Urretxuko udaletxean. Bertan, 90 hamarkada hasieran Schwazenbruck-eko alkatea zenarekin batera, anaitzea bultzatu zuen Ramon Arbizu alkate ohia eta Pello Gonzalez alkatea izan ziren. Prentsaurrekoan Schwazenbruck-eko alkate ohiak anaituta dauden herriekin duten harremana zaintzeko sortu duten elkarte eta elkarte honek argitaratu duen liburua aurkezteko. Bertan, beraiekin anaituta dauden herri guztien hainbat ohitura, abesti eta sukaldaritzaren errezeta bildu dituzte.

Pello Lizarralderen liburu berria

Pello Lizarralde idazle zumarratarrek "Larrepetit" nobela publikatu zuen maiatzean. Eleberri honek kritika oso onak jaso ditu eta irakurleen artean ere oso estimatua izan da. Pello orain Natalia Ginzburg-en liburu bat itzultzen ari da.

Kudeaketa batzordea Zumarragan

Zumarragako Udalean kudeaketa batzordea osatu zen maiatzaren 10ean eginiko ezohiko osoko bilkuran. Lehengo udalbatzako 11 kideak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatu zituen sei bokalek osatzen dute batzorde hori.

Zumarragako Udalean 17 ordezkarietatik 11 baino ez zeuden. ETak PPko zinegotzi Manuel Indiano hil zuen, eta PSE-EEko bost kideek kargua utzi zuten, bizkartzainik nahi ez zutelako. Horregatik, kudeaketa batzordea osatzea erabaki zen.

Sei kide berriak honakoak dira: PSE-EEko Antton Arbulu Zumarragako alkate ohia, Elvira Kortajarena Espainiako Kongresuko diputatua, Miguel Angel Morales Gipuzkoako Zuzendaritzako kidea, Lucia Querido Gipuzkoako batzarkidea eta Alfonse Segade Beasaingo PSE-EEko kidea eta PPkoa Julia Tercero.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Goierriren 50. urteurrena

Goierri Kirol Elkarteak bere 50. urteurrena ospatu du 2002an. Hori dela eta, urte hasieraz geroztik, hainbat ekitaldi berezi antolatu zituzten. Ekainean, urteurrena ospatzeko antolatu zituzten ekitaldi nagusiak izango ziren: elkarte ezberdinen arteko Gastronomi Lehiaketa, hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak, kirol ekitaldi ezberdinak... Ekainaren 23an, berriz, bazkari herrikoia izan zuten Etxe-Berri jate-txean.

Goierri elkarte 1952ko ekainaren 22an sortu zen, Galeperraren egoitza Urretxutik Zumarragara eraman zutenean. Goierriren lehenengo egoitza, ondoren Gazteleku egon zen tokian zegoen. Elkarte berriaren sorrerak arrakasta itzela izan zuen, sortu eta berehala 500 bazkide inguru baitzituen.

Goierrik, hasieratik, sail ezberdinak izan ditu. Elkarte ehiza, arrantza, pilota, mendi, futbol eta txirrindularitza sailekin sortu zen. Goierriren helburua herriko gazteei kirola egiteko aukera eskaintzea da. Hori dela eta, gazte talde batek Goierrikoei sail berri bat sortzeko proposamena luzatu dien bakoitzean, laguntzen saiatu dira. Egun, Goierriin bederatzi sail dituzte: saskibaloia, ehiza, txirrindularitza, zikloturismoa, areto futbola, mendia, pilota, arrantza eta xakea. Biztanleko federatu gehien dituen Gipuzkoako elkarte da.

Kirol taldeak bultzatzeaz gain, Goierrik hainbat kirol lehiaketa ere antolatu ditu urte hauetan guztietan. Horien guztien artean, Goierriko Txirrindulari Itzulia da kirol ekitaldirik kuttunena. Izan ere, lasterketa hau afizionatu mailako garrantzitsuenetakoa da eta, bertan, egun profesionalak diren txirrindulari askok parte hartu dute. Bestalde, Goierritik goi mailako kirolari dexente atera dira: Luis Mari Heras, Amelio Mendijur, Jose Mari Yurrebaso...

50 urteko ibilbidea betetzea, ezinezkoa litzateke bazkideen laguntzarik gabe. Goierriko sail ezberdinetako kirolariak eta dirulaguntza ematen dutenak dira bazkide. Azken hauek, euren dirulaguntzaz kirola bultzatzen dute eta egoitzako zerbitzuak erabil ditzakete. Egun, kirolariak ez diren 537 bazkide ditu elkarteak.

Merkatarien Astea


Bi-Tarteanek, Urretxu-Zumarragako Merkatarik Elkartek, Merkatarien I. Astea antolatu zuen ekainean. Ekainaren 10etik 14ra bitartean, hainbat hitzaldi, antzerki saioa eta merkatarien afaria izan ziren. Afari honetan, Urretxu eta Zumarragako denda zaharrenak omendu zituzten: Candido harategia (1939) eta Urdangarin burdindegia (1876).

Bestalde, ekainaren 10ean, joan den mende erdialdean herriko dendak nolakoak ziren azaltzen zuen erakusketa arrakastatsua zabaldu zen Zumarragako Soraluze kalean. Ekainaren 23a bitartean zabalik izan zen erakusketa honetan, Urretxu eta Zumarragako argazki zaharrak, botilak, kartelak, liburuak, erremintak... izan ziren ikusgai. Merkatarien I. Astea oso arrakastatsua izan zen eta aurtan ere antolatzeko asmoa dute.



Ferretería

BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Gazteleku berriaren inaugurazioa

San Juan bezperan GazteleKU berriaren inaugurazioa izan zen. Zumarraga Urretxuko Gazte Asanbladako gazteek ia lau urte luze eman dituzte GazteleKU berriaren egoitza izan behar zuen Urretxuko Urolako geltoki zaharra egokitzen. Urte hauetan guztietan teiltatua konpondu dute, goiko solairuan bi egongela prestatu dituzte eta etxeazpian taberna, eskenatokia, mahaia, komuna eta futbolin zaharra jarri dituzte. Orain, Udala goiko pisura eramango duten eskilarak eta igogailua egiten ari da. Gazte Asanbladakoek beheko solairuan ikuskizun ezberdinak antolatu dituzte dagoeneko: antzerki emanaldiak, kontzertuak, hitzaldiak... Barrari dagokionez, lehen sei hilabeteetan, Jokin Lasa, Julen Badiola, Oier Agirre eta Gaizka Arakama izan dira tabernariak.

Kilometroak 2002: kultur ekitaldiak

Urte osoko ildoari jarraituz, Kilometroak 2002ren inguruko ekitaldi ugari izan ziren ekainean ere. Ekainaren 7an, Gipuzkoako bertsolari gaztetxo onenek Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala jokatu zuten Zumarragako Beloki pilotalekuan.

Biharamunean, Umeen Eguna ospatu zen. 0 eta 6 urte bitarteko haurrek marrazki tailerra, Iker Antia ipuin kontalariaren saioa, puzgarriak eta Kukubiltxoren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek, berriz, jokoak, bazkaria eta play-back saioa izan zituzten.

Hurrengo astean, hilaren 15ean, Oroimenari Kantari kantaldia izan zen Ederrena pilotalekuan. Bertan, ikusle ugari bildu ziren herriko abeslari ezberdinek eskaini zuten saioaz eta Kilometroak 2002ko kantaren aurkezpenaz gozatzeko asmoz. Kilometroak 2002ko kantaren doinua Estitxu Sudupe urretxuarrak sortu zuen. Hitza, berriz, Estitxuk berak eta Arantxa Gabiriak idatzi zuten. Mendiarrak Anaiek txalapartaren soinuaz aberastu zuten abesti martxoso hau.

Ministerio de Instalaciones Eléctricas
HERCE
Eléctricas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Taberna
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URKI

liburudenda

Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

Joseba Garmendiari, maitasunez

Kaixo Joseba, ez nauk ohiko "zer moduz" galdera nimiñoarekin hasiko hagoen zuloan gaizki hagoela jakinik. Otamotz aldizkariko lagunek pasa den 2002. urtearen inguruan artikulutxo bat eskatu zidatek eta, nire iritziz, hire atxiloteta eta bahiketara gure herrietan gertatu den gauzarik garrantzitsuenaren izan denez, publikoki hiri idaztea pentsatu diat. Pasa berri den urtean zehar espainiar eta frantziar estatuek gure Euskal Herri zahararen izaera eta eskubideak ukatzen jarraitu dutenez, gure herrietan badira gatazkaren ondorio latzak bizitzen ari zireten familiak. Ainhoa, Xabi, Gonzalo, Mertxe, Gotzon, eta abar luze batek osatzen duzue Euskal Herriatik ehundaka kilometrotara preso zaudeten 650 euskaldunen zerrenda.

Auzi honetan gure herrietako agintari gorenak mantendu duten jarrera epela ezaguna duk. Urtarrilean zazpi herritar izan ziren atxilotuak. Zumarragako Udaleko agintari jakin batzuk bere fobia pertsonal edo pertsonalitate faltaren ondorioz ez ziren gai izan atxilotuen egoeraz interesatzeko. Operazio berean, zumarratar ezagun batek, gobernu autonomikoaren bozemaile lanetan, poztu eta txalotu egin zuen zazpi lagun hauen atxiloteta. Askatu zituztenean Imaz jaunak ez zuen txintik ere esan, gehiegitan bete duen lan zikina ederki asko betez.

Apirilean hirea etorri huan: ETAREN sare ekonomikoa osatzen omen huan. Ongi asko zekiten espainolak zein funtsezkoa zen hire lana Udalbiltzak antolatutako Zuberoaren garapen ekonomikoaren aldeko kanpaina erraldoian. Hemen ere Urretxuko agintari nagusiak bere maila kaskarra berriro azaldu zuten. Ez mozio epel bat onartzeko, ez hire familiarik elkartasun minimorik azaltzeko gaitasunik. Egunen batean, irteeran, kontatuko

diguk herritarroei zer nolako laguntza edo elkartasun jaso duen Urretxuko zinegotzi batek bere alkatearen aldetik. Bazekitek beste batzuetan azkar asko mugitzen eta aho bete hitz potoloz hitz egiten. Baina maila desberdineko herritarra izango haiz, Joseba. Gaur da eguna, 8 hilabete geroago, non inork ez hauen epaitu.

Ekonomikoki ez duk urte txarra izan. Hala ere, zurrumurrak ziotek Eurotools (lehengo Irimo) lantegia Gasteizera daramatela, Urretxuko lantegi handienak hemendik bizpahiru urtetara bere ateak itxiko dituela. Harrituta negok zein zalaparta gutxi sortu duen berriak. Non uste dik jendeak lan egingo dutela gure seme-alabak? Eta, zoritxarrez, ez duk azkena izango. Datozen urteetan, produktu jakin bat egin eta atzerriko kapitala duten enpresak eskulan merkegoaren bila joango direlakoan negok. Etorkizunean, Urretxu-Zumarragako industriaren etorkizuna ikerkuntzan, garapenean, berrikuntzan oinarrituko da. Inguruko eskualdeek aurretik somatu dute aldaketa honen beharra, eta Urretxu-

Balantzearen balantzan

Balantzea, igarotako 2002. urte honen azterketa egitea eskatu didate eta egia esan, zaila zait erraza dirudien eginkizun hau bere betera eramatea batez ere, hainbat herritarrek, taldek, erakundek pozez eta ilusioz burututako lana kritikatu behar baitut, batzuen lana onestuz eta besteena gaitzestuz. Ez dut honelakorik egitea gustuko eta horrexegatik, balantzea egin baino gehiago gure herrietako

hainbat herritar eragileren bihotzak, eta ez direnenak ere bai, ikutzea pentsatu dut. Pentsatu, eta egin ere bai.

Lehenik eta behin, herri bion mesederako lanean aritu zireten eta lanean diharduzuenoi, herritar bezala, neure eskerrik beroena luzatu nahi nizueke; pazientzia handia izan behar da bate-tik, aspaldidanik, egiten ari ziretenari eusteko eta bestetik, erditzen diren asmo berriak ekintzetan gorpuzteko.

Bigarrenik, herri biotan zuon oskoletik herrion errealitatea ezagutzen aritu eta apalki parte hartzen hasi ziretenoi ongi etorrikerik beroena; aurrera!, izan

kemena eta adorea, bada esatekorik eta egitekorik Zumarraga-Urretxun.

Hirugarrenik, lozorroan egon eta herri hauetan ezer ez dagoela pentsatzen duzun horri hauxe esaten dizut bakarrik: zatoz!, behar zaitugu, zure ideiak egokienak dira gaizkitzat jotzen duzun hura eraldatzeko (gogora ezazu, ikuspegi eta ikuspuntu anitzak eskaintzen dituen herriak beste jokabide eta jarrerak lantzeko giroa sortzeko eta garatzeko dinamika bidera dezakeela).

Laugarrenik, kultur talde desberdinoi: saiatu, inoiz baino gehiago, elkarren berri izateko; zuon taldeak burutzen dituz-

Zumarraga despiste eta atzerapen puntua ez ote dugun negok.

Azkenean hasi dituk hain beharrezkoa den Ormaiztegi-Zumarraga autobidea eraikitzen. Urte dexenteko atzerapenez, baina hala ere ongi-etorria izango da. 2002. urtean zehar baieztatu digute Zumarraga-Bergara zatia 2010 urtera atzeratuko dela eta bi karril besterik ez duela izango. Gure betiko jauntxoaren interes ekonomikoaren ondorioz (badakik, Joseba, Eibar-Gasteiz super-autopistari etekinak atera eta hainbat poltsiko bete beharra) Bergaratik Zumarragara eraikitako errepide berria XXI. mendeko beharrei erantzungo ez dion azpiegitura izango duk.

Hori bai, inork behar ez duen Abiadura Handiko Trena badatorrela iragartzen digute gure agintari gorenak. Gasteiz-Bilbo-Donosti lotuko dituen supertren moderno, azkarra eta ezinbestekoa aurkezten digute. Txikizio itzela datorkigu, Joseba. Urretxu-Zumarragan azpitik pasako omen zen, baina Ezkio edo Antzuolara joatea besterik ez dago gure

baso eta bailaretan izango duen eragina ikusteko: zatiketa eta txikizioa.

Munduko adituek garapen sotsotengarriaren ideia zabalitzen ari dituk eta honela ziok: "etorkizuneko belaunaldiak jasoko duten inguruaren kalitatea, guk jaso genuenaren, gutxienez, berdina bada, gure munduaren garapena sostenigarria izango da". Gure inguruan begiratzeari besterik ez zegok filosofi honetatik zein urrun gauden ulertzeko.

Gurea modernitatea, desarrollismoa, fikziozko ongizatea edo, kasu askotan, ondokoak baino gauza gehiago eta garestiagoak izatearen izenean hor dihardugu gure herrietako lur hoberenak porlanez estaltzen eta beharrezkoak ez diren proiektu ikaragarrien bidez, urtetik urtera eta gero eta azkarrago, gune natural gehiago desagerpenera eramanez. Eta dirudienek, ez diagu konturatu nahi gure ingurua suntsitzen ari garenik. Horrela, adibidez, noraino igo behar diagu gure mendietan gora etxebizitzak egiten herrian ehundaka hutsik dauden bitartean? Konturatzen ote gaituk urtetik urtera

Urretxu-Zumarragan elur gutxiago egiteak gure edozein tokitara kotxean joan beharrezkoak lotura zuzena duela?

2002ak ere berri onak ekarri dizkigu. Eta hauen artean bat kontatuko diat, hik ikusteko aukerarik ez hualako izan. Gaztetxea berriro martxan zegok. Indibidualitatea nagusi den garai hauetan, guztiz itxaropentsua duk gure gazteek elkarlan eta autogestiorako gune txukuna izatea. Dagoeneko bere emaitzak ematen ari duk hainbat aktibitate desberdin antolatuz.

Beno Joseba, luze arituko nintzateke, baina espazioa mugatua duk. Nahiz eta ezinezkoa izan, zuek egunero lan eraikitzaile eta abertzalean utzitako zuloa denon artean nolabait estaltzen saiatzen ari gaituk, eta jarraituko diagu. Zaindu zaitezte eta besarkada bero bat guztiontzat.

Joxean Alustiza
Batzar Nagusietako Diputatua

IRITZAZ IRITZI

ten ekintzetan ez bakarrik parte hartu, beste taldeek eskaintzen dizkizueten ihardueretara joan, haiek gertuagotik ezagutzeko, haiengandik ikasteko eta haiekin esku hartzeko.

Bosgarrenik, edozein kultur ekimenetan bi udal hauetako dirua kudeatzen duzuen kultur arduradunei originalak diren ideien zakua beti irekia eduki, gazteen sormena lantzeko berauek dituzten kezkek eta ideiak gauzatzeko pentsagunek sortu eta sustatu, kulturatik udaletako beste arloetara (politikara, ekonomia-ra...) zabal dadila benetako kultura lantzeko nahimen eta ametsa, honela, benetako

kulturatik arituz heziketa osoa eta beteaz lortzen ikasiko genuke herritarrok.

Azkenik, euskara, gure hizkuntza, zuoi hitzok adierazteko darabildan nire lanabesa, ez dezagula ez erabiltzeagatik, itotzen utzi. Eutsi haurrok, gazteok, gurasook, aiton-amonok zuon iturri gozo horren gulu-guluari, agortu eta lehortu bada inoiz zerbait izan dadila gure lotsa.

Euskarari nire omenaldia egiteko, Lizardik, poeta zarauztar ospetsuak, 1928. urtean, Zumarragara etorri eta bertako gurasoei esandako hitz berak errepikatuko dizkizuet: "Euskera izan da, milla eta millaka urteetan, gure izena ta gure

izana, gure jolasteko laguna; gure maitasunaren adierazbidea, gure gogoarentzako esnea, gure gurasoengandiko ots ezta... Euskera zan gaurdaño, gure antzin-antzinako asabaekin lotzen ginduzan katea".

Euskara, lotzen gintuen eta gaituen katea, herri baten atea, zurea eta nirea. Zu, hura, haiek, ni; herritar maite ekingo al diogu herri berri baten eraikitze-ari?

Andoni Salamero
Idazlea




Bidegorrian konponketak

Eusko Jaurlaritzak ur-araztegitik amaierara doan bidegorri zatia txukundu zuen, ur-araztegia egiteko lanek bidegorria kaltetu baitzuten. 120.000 euroko obra Obra Hidrauliko sailak ordaindu zuen. Zolua asfaltatzeaz gain, aulkiak, paperontziak eta farola berriak jarri ziren. Baita zenbat metro egin ditugun adierazten duten seinaleak ere.

Gainzuriko obrak

Uztailean eman zitzaion hasiera Gainzuri ikastetxearen eraikin berriko obrari. Eraikin berri hau egiteko lanek Eusko Jaurlaritzaren eta bi Udalen dirulaguntza dute eta irailerako bukatuak egotea espero da. Eraikinak hiru solairu eta teilatuazpia izango ditu. Beheko solairuan areto handi bat izango da. Honen gaineko bi solairuetan, berriz, Gainzuriko haur hezkuntzako ikasleentzako 12 gela, psikomotrizitate gela eta irakasleen gela izango dira. Teilatuazpian, berriz, estalitako jolaslekua jarriko da. Eraikin berri honi esker, Gainzuriko ikasleek Zelai-Arizti utziko dute eta guztiak elkarren ondoan izango dira. Egungo Gainzuriaren eraikinaren eta eraikin berriaren artean estaligabeko jolaslekuak egingo dira.



IRITZIZ IRITZI

Pin, Pan, Punk

Never Neverlandetik bailara itxi samar batean dauden herri bi ikusten ditut, egia esan, herri bakarra dirudite. Burdinaren oihartzuna entzun dezaket eta gauean lantegira doazen guztien pausoak ere bai. Tximinia erraldoiak ere badaude, baina ez larritu, dagoeneko ez baitute hainbesteko kutsadurarik zerura edota ibaira jaurtitzen. Egon isilik, kutsadura egon badago, xuxurlatzen dit Peter Punkek Neverlandeko heroiak, orain ez dagoela iruditzen zaizue garai okerragoak jasan dituzuelako, zozoen kontsolamendua. Lasai Peter, ez dago zertan horrela ipini beharrik. Nik herri bien panoramikarekin jarraitzen dut eta elikatzen gaituzten fabri-

ken ondoan etxe berri ugari eta datozenak ere irudika ditzaket, ez ditut, ordea, espazio huts gehiegi ikusten, ez dut lurra apenas ikusten. Lehen lurra zena orain salgai dauden metro karratuak dira zuentzat, eskerrak mendiak dituzuen, oihukatzen dit oraingoan Peter Punkek, bankuekin ezkondu behar duzue lehenengo eta gero metroak erosi, nahiago dut Neverland. Peter, tonto aurpegia jartzen ari zait eta gu geure mundu honetan zoriontsu izaten saiatzen gara.

Ez nizuke zoriontasun gezurtitxo hori lapurtu nahi baina erabiltzen hasi zareten diru txanpon berri hori ere... Euroa? Bai, iaz estreinatu zenuten txanpon berri hori. Hori bai dela sartu dizueten ziria! Aizu Peter, Europa osoko gauza da euroa. Bai, jakin dut baina zuek zeharo

engainatu zaituztete pezeta eta marko alemaniarra ez baitziren gauza bera euroa jaio zenean, ala bai? Tira, egia da gurean behintzat denak gora egin duela soldatak izan ezik. Ez dut zuen bizitzeko modua entenditzen egia esaten badizut, nik jateko premia sentitzen dudanean irudimenarekin bakarrik konpontzen naiz eta mugitzeko ere ez dut garraibiderik behar, hegan egin dezaket; zuek dena erosten duzue, irudimena ahaztu duzue nonbait.

Gure herri bietara berriz begiratzearan autoak ikusten ditut nonahi, gero eta autol gehiago, ia ia jende bezainbat gupil biribil: ondo aparkatuak, gaizki aparkatuak, oso oso txarto aparkatuak... Zer espero zenuen bada? Non aparkatuko dituzte bada autoak hainbeste herrilan, hainbeste errepide aldaketarekin eta jen-

Goiargiren 20. urteurrena

Goiargi abesbatzak 2002an 20 urte bete ditu. Goiargiren lehen kantaldia 1982ko uztailaren lehen zena zen Zelai-Arizti zaharrean. Urteurrena ospatzeko, 2002ko uztailean, egun berean eta toki berean, kantaldi oso berezia eskaini zuten. Bertan urte hauetan guztietan abestutako kantak eskaini zituzten. Bukaeran, orainarteko zuzendari guztiei oroigarri bat eman zieten eta urte hauetan guztietan abesbatzan aritu diren guztiek azken kanta abestu zuten.

Goiargiren sortzaile eta bultzatzaile nagusia Maite Palacios izan zen. Lehen zuzendaria Antonio Rey izan zen. Antonio Rey-k Goiargi utzi zuenean, Xabier Barriolak hartu zuen lekukoa. Xabier Barriolaren zuzendaritzapean, Goiargi abesbatza mistoa izatera pasa zen. Abesbatza mistoak 1984an eskaini zuen lehen kontzertua. Egun, Jabier Arratibel da zuzendaria.

Goiargiri esker bi herriotako jende askok kantuan ikasi du eta herriko kantuzaletasuna hazi da. Gainera, Goiargiren eskutik, herrian abesbatza berriak sortu dira: Kimets, Goiargi Txiki eta gazte-txoenen abesbatza.

Turismorako dirulaguntza

Uztailaren 22an Eusko Jaurlaritzaren turismo sustapenerako zuzendaritzak Urretxuko Udalarari 56.795 euroko dirulaguntza ematea erabaki zuen. Udalak diru hau interes turistikoa duten tokiak seinalizatzeko, bisitarientzat eskuorri bat argitaratzeko, Urretxuri buruzko ikusentzunezko bat prestatzeko eta proiektoreak erosteko erabiliko du. Urretxuko Udalaren azken asmoa Iparragirre ardatz dela gure ondarea ezagutzera ematea da. Hori dela eta, Jose Mari Iparragirreraren inguruko dokumentazioa biltzen ari da etorkizunean berari buruzko museo bat irekitzeko.



IRITZIZ IRITZI

deak auto berria erosteko duen grina izugarri horrekin? Gizajoa! Ez dakit bada, kotxea duen bakoitza zerga municipalak ordaintzen dituen eta horrek zerbait suposatatu beharko lukeen. Aizu, badirudi Neverlanden zeu bizi zarela! Benetan uste al duzu zuen sistema horretan ematen duzuen denak duela bere buelta? Hori esaten digute Peter. Nortzuk? Gortean bizi direla uste duten agintari horiek? Zein gorte Peter, ertaroa aspaldi pasa zen eta orain hauteskundeak egiten ditugu eta hauen bitartez agintariak hautatu. Inozoa zara benetan eta hobe zenuke Neverlanden gelditzea, hemen behintzat Garfio gure istorioaren pertsonaia gaiztoa dela argi dugu eta bere kontra borrokatzen dugu erlojuak eskuetan ditugula. Kredituek zuengan pentsamendu kritikoa

ezabatzen dute eta haien ordainketak bizitza lapurtzen dizue, dagoeneko zuen munduan kolorezko musuak ere ez dira debalde.

Triste jartzen nau Peter Punkek, gu orain sumisiora ohitzen ari gara eta berak esaten duen horrek guztiak ikusi nahi ez dudana, eta alderantziz dagoen mundua ipintzen dit agerian, hankaz gora dagoena. Aipatu, Peter, iaz gure herrietan ontzat ematen dituzun bi ekimen. *Lasai egon zaitez txo, jende txikiaren artean eta berauen bizitza txikietan oraindik ikusten dut irudimenaren aztarna, bi adibide nahi dituzu eta hor doaz: gazteek eskuz egin duten Gazteleku berria eta ez ohiko zinea herrian ikusteko aukera sortu duen giza taldearen lana.*

Emaidazu orain eskua Peter eta

gogorarazi iezadazu hegan egiten atzera, nire bailarara bueltan noa eta. Han autoa hartuko dut, gero mugikorraren bipa entzun eta agian nire kateak zeintzuk diren gogoraraziko didan laneko deia jasoko dut, orduan Alaskako kurban gelditu beharko dut autoa bi autorentzat lekurik ez baitago porlanezko parkearen ondoan, gero betikoa egitearren zurito bat hartzerara joango naiz eta ordaintzeke dudana etxera iristen naizenerako hegan egiten ahaztua izango dut memoriaren itsasoan. Badakit.


"Kanpaitxo"

Jon Plazaolak bakarrizketa lehiaketa irabazi zuen

Jon Plazaola urretxuarrak Localia Telebistak antolatutako umorezko bakarrizketen lehiaketa irabazi zuen abuztua erdialdean. Saria Karibera bidaia izan zen.

Jonek eta Macreak Localian umorezko monologoaren saio baterako jendea behar zutela jakin zuten eta joatea erabaki zuten. Beste 30rren bat lagunekin batera, onartu egin zituzten, talde ezberdinetan banatu zituzten eta astero talde bateko partaideek Antiguoko "Cafe Candelan" euren saioa egin zuten. Ondoren saio guztiak telebistan bota zituzten eta ikusleek talde bakoitzetik gehien gustatzen zitzaionari botua eman zioten. Talde bakoitzeko onena finalera pasa zen.

Finala Donostiako Aste Nagusian izan zen Boulevardeko kioskoan. Ikusleek mobil bidez eman behar zuten euren botua. Azkenean, Jonek Zumarragako jaietan Kilometroak 2002ren oholztan lehenengoz aurkeztu zuen "Autoeskola" bakarrizketa izan zen Localiako ikusleen gustukoena.



IRITZ IRITZ

Doinu eta neurri libreak

Urtekari batek urte betearen gertaturikoa jorratzea da ohikoena; bertso munduan, baina, nekez ematen da aldaketa nabarmenik urtebeteko epean, eta gure bi herriak ez dira salbuespen. Bertsolaritzan urtekaria lau urtetik behin idatzi beharko litzateke gehienez ere, lau-urtekari moduan edo (Txapelketa Nagusia bera ere maiztasun horrekin ospatzen da), irakurleak lerroen joanean edukien garapena soma dezan. Ondorengo lerroetan Zumarraga-Urretxun bertsoak eta Bertso Eskolak azken urteotan jarraituriko bidea erreparatuko dut.

Bistakoa da Gipuzkoako beste herri batzuetan dituen moduko sustrai sendoak ez dituela bertsolaritzak gurean; egia da kulturako gainerako alorrek osasun hobea dutela uneotan, musikak, adibidez. Nire herrikide batek aldizkari honetako azaroko alean kaleraturiko artikulua

irakurri besterik ez dago, musikak herri honetan azken urteotan izandako garapenaz jabetzeko. Hau horrela izanagatik, bertsoak ere, bere mailan, nolabaiteko hazkunde bizi izan duela uste dutenen taldean kokatuko nuke neure burua.

Laurogeigarren hamarkada erdialdean, Juanjo Sagastibeltza eta ezbeharrez desagerturiko Iñaki Beitia izan ziren bertsoa landu eta bertsolaritza bultzatzeko asmoz lehenengo Bertso Eskola hura sortu zutenak. Gaztetxo ugari igaro da nerabazaroko uneren batean Eskola honetatik, eta neurri batean edo bestean, sustatzaile bien lan txalogarriari esker, bertsoa zer den ezagutu, paperean bertsoa osatu eta ausartenak jendaurrean bertsoak botatzera ere iritsi dira!

Hala ere, bertsoa modu hotz xamarrean bizi zen urte haietan Bertso Eskolatik kanpo. Bertsoaren agerpena Santa Lutzi feriararen aitzakian ospatzen zen (eta ospatzen den) Luzio Gabiriaren omenezko bertso saiora mugatzen zen gehienetan, tarteka beste kultur-talderen batek antolatutako bertso-afari bakanen

bat salbu. Zabalkunde nabarmenena duela lau urtetik hona gertatu dela esan daiteke, betiere lehenengo egindako lanean oinarrituz.

Azken urte hauetan Bertso Eskola bere bi zutabe nagusiak sendotuz indarberritu da; batetik, helduen taldea eraberrituz eta bestetik ikastetxe ezberdinetako haurrak biltzen dituen umeen taldea birsortuz. Talde bien helburu nagusia antzekoa da, baina adin ezberdintasunak garbi bereizten ditu nola lan metodologia, hala urte amaieran lortu ohi den emaitza. Umeen taldean, sarritan bertsoa guztiz osatzera heldu ez arren, haurraren heziketan garrantzia handia izan dezaketen atal ugari garatzen dira, irudimena, logika... Gainera, euskara hobeto menperatzeko tresna paregabea izan liteke eta da bertsolaritza.

Bi herriotan oihartzun gehien izan duten ekimenak helduen taldeak aurrera eramandakoak izan dira, zalantzarik gabe. Dagoeneko klasiko bihurtu dira eskualde mailan Legazpiaren aurkako bertso-desafioak, adibidez. Jolasa baino,

Komunismo mendian

Jon Maroto, Iñaki Alvarez eta Xabi Ormazabal uztaila bukaeran Tadjikistanera abiatu ziren Komunismo mendia igotzeko asmoz lagun bilbotar batekin batera. Xabik soilik lortu zuen gailurra egitea, baina hara heltzeko eta, batez ere, onik jaisteko hiru espediziokideen laguntza ezinbestekoa izan zuen. Izan ere, gailurrera arratsaldeko 7etan heldu zen eta jaitsiera oso nekatuta eta konjelazio txiki batzuekin egin zuen.

Lurrako dantzariak Polonian

Iazko udan ere Urretxuko Lurra Dantza Taldeko kideak euskal dantzen eta kulturaren enbaxadore lanetan izan ziren atzerrian. Abuztuaren 20an Polonia aldera abiatu ziren bertako Rzgów herriko "Uztaren jaialdian" parte hartzera. Bidean, Urretxurekin anaiturik dagoen Alemaniako Schwazenbruck herrian atsedean hartu zuten. Poloniara abuztuaren 23an heldu ziren eta, bertan, bost egun eman zituzten. Itzuleran, uholde izugarriak jasan dituen Txekiako hiriburua, Praga, eta Suitzako Berna bisitatu zituzten. Irailean, Santa Anastasia jaietan, poloniarrek Urretxun izan ziren dantzatzen.



IRITZ IRITZ

jokoa direla esango nuke nik, borroka ere bai agian, nahiz eta gehienetan parekotasuna izan nagusi. Bestalde, bertsoa kale-ateratzea lortu da, bertso trama entzutsuen bitartez. Antzerkiok jende askorengana heldu diren arren, baliteke bertsoak behar lukeen protagonismoa partaideen antzezlan antologikoek (antilogikoek?) eramatea, baina edozein kasutan ezin uka ekimen positiboak izan direla orokorrean, aurrerantzean errepikatu beharrekoak. Ekimenok, kalean bertsoaren sua indartu duten hauspoa izan dira eta egun geroz eta gehiago dira zenbaite-tan bertsoa mingainean daramatenak, une eta toki arraroenetan askatuz. Hala ere, larunbat gaueko "alaialdiek" ez lukete, nire iritziz, gure kulturaren agerpenaren zati hain handia eraman behar, baina tira.

Gainerako kultur-taldeek ekimen, jaialdi, ihardunaldi, festa eta abarretan ere, bertsoak moldatu du bere txokoa Zumarraga-Urretxun, eta ekitaldi hauetan bertsoaren protagonismoa urria izanagatik bistakoa da talde ezberdinen arteko

elkarlanak guztiok norabide berean arraun egitea bultzatzen duela, eta hori ez da gutxi. Honez gain, Bertso Eskolak herriko ordezkarien partehartzea bermatu du probintzi edo Euskal Herri mailan antolatzen diren txapelketa eta sariketa ezberdinetan, aintzat hartzeko datua azken hau, ordezkari hauen lana edonolokoa izanik ere.

Jakina da arantzarik gabeko larrosarik ez dagoela, eta Bertso Eskolak badu bete gabeko xederik ere; zein litzateke, berez, Bertso Eskolaren helburuetako bat? Bertsolariak sortzea. Gure herrian, Bertso Eskolak bertsozale ugari sortu du, ez ordea puntan ibiltzeko gai izan daitekeen bertsolari askorik. Andoainen Mendiluze daukate, esaterako, Durangon Iturriaga eta Elortza, Hernanin Maialen, Beasainen Sarriegi,... eta Zumarraga-Urretxun? Otamendi datorkit burura, baina hau Gasteizekin konpartitzera behartu gaitu halabeharrak. Honekin ez dut esan nahi horrek behar zuenik (duenik) Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskolaren helburu nagusi, herrian

"izen" bat, kanpora begira Bertso Eskolako ikur izango zen norbait atera ez izanak sortzen didan tristuratxoa agertu nahi dut soilik. Argi dago, gora iristeko lan handia egiteaz gain zortea alde izatea ere ezinbesteko dela...

Alferrik da, ordea, atzera gehiegi begiratzea, ezagun baita igarotako urak nekez mugitzen duela errotarik. Iraganetik ikastea komeni da, hala ere, oraina landuz etorkizunak irribarre egin dakigun. Ondorengo hilabeteetan emango du zeresanik Bertso Eskolak, eta bertsozaleak izango du Zumarraga-Urretxun bere bertso egarria asetzeko aukerarik. Juanjo eta Iñakik hasitako iraupen lasterketa bidegurutze batera heldu da; ea etorkizuna gurutzbide izatetik urrun bizitzeko parada dugun.

Gorka Azkarate
Bertsolaria

Afari Kantuak liburua

1994tik gaurdaino berrehundik abesti gora kantatu dira Kantu Afarian. Musikariek orainarte abestutako abesti hauek guztiak poltsikoan eramateko liburu batean biltzea ideia polita izango zela pentsatu zuten. Afari Kantuak liburua irailean aurkeztu zen.

300 orrialde dituen liburuan, 209 abesti bildu dira. Abesti herrikoiekin batera, Euskal Herriko bakarlari eta talde asko eta askoren abestiak liburuan dira: Oskorri, Hertzainak, Xabier Lete, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Itoiz... eta Jose Mari Iparragirreraren abestiak, noski!

Liburuaren mamia urte hauetan guztietan abestu diren abestiak diren arren, egileek Kantu Afarian parte hartzen duten herritarrei ere omenaldi txikia eskaini nahi izan diete. Hori dela eta, kantuen artean Kantu Afarian ateratako 30 argazki inguru aurki ditzakegu. Azalaren eta kontrazalaren diseinuak, berriz, Unai Izagirrek egin ditu.



ZSKren diskoa

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa txalapartari taldeak bere hamargarren urteurrena ospatu du 2002an. Hori dela eta, irailean bere lehenengo diska aurkeztu zuen Urretxuko Gernikako Arbola plazan. Hamaika abestiz osatua dagoen diska honetan Urretxu eta Zumarragako hainbat musikariek parte hartu dute. Hauek guztiak, euren musika tresnen soinua txalaparta soinuarekin uztartu dute. Teknikari lanetan Borja Aranburu aritu da. Diskan parte hartu duten musikariren zerrenda benetan luzea da, herriko musika talde gehienek parte hartu baitute: Ostebi, Bakarne Jorge, herriko trikitilariak eta DJ-ak, Goiargi Txiki abesbatza... Hauetatuz guztietaz gain, Jose Luis Padron eta Andoni Salamero poetek eta Gorka Salmeron argazkilariek ere euren ekarpena egin dute. Guztira, ZSK taldeko kideez gain, 52 lagunek parte hartu dute.

Realetik Barakaldora

Alberto Alejandro futbolari zumarratarrari denboraldi honetan bukatzen zaio Realekin duen kontratua. Aurrendenboraldian Denoueix entrenatzaile berriaren onespena lortzen saiatu zen arren, Realeko teknikoek beste talde bati uztea erabaki zuten eta 2. B Barakaldon jokatzeko ari da. Bertan denboraldi ona burutzen ari da, ia partida guztietan hasierako hamaikakoan aritzen baita eta gol dexente sartu baititu.




Parrokia berria

Bi urte inguruko lanen ondoren, Zumarragak parrokia eliza berria du jada. Leturiatako parrokiaren inaugurazio ekitaldia irailaren 29an izan zen eta, bertan, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina izan zen. Parrokia eliza berriak Zumarragako auzune hartako sinisdun guztien beharrak asetzeko adina egoitza ditu. Eraikinaren diseinua Iñigo Guibert arkitektuak egin du eta barrualdea, berriz, Jose Luis Cobreros eskulturgileak prestatu du. Sagrarioa, berriz, Antonio Oteizak (Jorgeren anaiak) egin du.



Aitor Gonzalez Vueltan garaile

Alacanten bizi baina Urretxun jaio zen Aitor Gonzalez txirrindulariak denboraldi bikaina egin du. Giroan bi etapa irabazi zituen eta Marmoladako etapan huts egin izan ez balu podiuma lortu izango zuen. Baina urteko balentriarik handiena Vueltan lortu zuen zalantzarik gabe, hiru etapa eta sailkapen nagusia lortu baitzituen. Denboraldi honetan Aitorrek Fassa Bortolo talde italiarrean aritzeko asmoa du.



Torres garaile Goierriko Itzulian

Urtero bezala, Goierriko Itzulia Santa Anastasietako aurrekaria izan zen. 2002ko ekitaldia Alfus-Tedes taldeko Fernando Torresek irabazi zuen. Lehen etapako garailea Baqué taldeko Ricardo Serrano izan zen. Bigarren etapan, Santa Barbaran, Torresek berak irabazi eta liderraren mailot horia jantzi zuen. Igandean, Caja Ruraleko Aitor Perez Arrieta zegamarrak irabazi zuen etapan. Fernando Torresek, sailkapen nagusiaz eta bigarren etapaz gain, erregularitatea, mendiko sailkapena eta taldekakoa ere irabazi zituen. Tarteko helmugan sailkapena, berriz, Cesar Garrizek irabazi zuen.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Pisua salgai Zumarragan

Soraluze, 1. eskuina

☎ 943 72 14 17

☎ 943 72 19 94



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



Kilometroak 2002: guztion arrakasta

Eguraldi bikainaren eta Euskal Herriko txoko guztietatik etorri ziren euskaltzaleen laguntzaz, Urretxu-Zumarragan sekula izan den festarik handiena bizi genuen urriaren 6an.

Zinta mozketa ekitaldian, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako alkateak, Anjeles Iztueta eta Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako kultura eta hezkuntza sailburuak eta Antonio Campos eta Jose Ramon Zubizarreta Ikastolen Elkarteko lehendakari ohia eta lehendakaria izan ziren, besteak beste. Eguerdian, Lizeoan, Antonio Camposek eta urte hauetan guztietan Urretxu-Zumarraga Ikastolak izan dituen lehendakariak ondo merezitako omenaldia jaso zuten.

Ordurako milaka lagun jada zirkuitua egiten ari ziren. Guztira, 125.000 lagun inguru bildu ziren antolatzaileek zirkuituan zehar prestatutako gune ezberdinetan. Kanpotar gehienak txunditurik gelditu ziren Santa Barbara eta Antio ikusi zituztenean.

Antolatzaileak oso gustura agertu ziren egindako lanaz. Izan ere, helburu



guztiak bete ziren. Urretxu-Zumarraga Ikastolak bere eraikina eraberritzeko eta baliabide informatikoak eta teknologikoak eguneratzeko primeran etorriko zaion laguntza ekonomikoa jaso zuen.

Kilometroak 2002ren beste helburuak mankomunidade osoan euskararen presentzia sendotzea eta auzolana bultzatzea ziren. Hau lortzeko ehundaka lagun urte osoan lanean aritu ziren.

IRITZ IRITZ

Kilometroak 2002

Urretxu eta Zumarragak 2002an bizi izan duten ekitaldi aipagarrienetarikoa izan da Kilometroak 2002. Lourdesko Ama Ikastolak antolatua, gainontzeko Euskal Herriko euskaldun askorentzat gure herri-herbiltzeko aitzaki ezinhobea suertatu baitzen ikastolen aldeko jaialdiaren ospakizuna gurean ospatzea. Ez dut Kilometroak daturik zuenganatu nahi, ezta ekitaldi haren azterketa sakonik egin

nahi ere, aldiz, gure herriarenganako izan duen eraginaz hitz egin nahi dizuet, guregana hurbildu zirenen artean, edo zuengana hurbildu ginenen artean zehazkiago esanda, igande eguzkitsu harek suposatuen duena alegia.

Bi perspektiba desberdin egon ohi dira horrelako ekitaldi handiak aztertzeko garaian: lehendabizikoa inplikazioarena eta bigarrena bisitariarena. Neurri batean edo bestean antolakuntzan zer esana izan zutenek elkarlan luze baten fruitutzat ikusten dute ospakizun eguna, egunez egun arazo izan diren aldagai horien guztien funtzionamendu zuzenez

larriturik eta, baita ere, horrelako ekitaldi erraldoi baten prestakuntzak suposatzen duen presio handiak sortzen dituen ekidin ezinezko tira biratan arduratuta. Bisitariok garenok ez ditugu horrelako kuestioak erreparatzen eta beste aldagai desberdin batzuen arabera egiten dugu azterketa: zirkuitoaren zailtasuna, herriaren zerbitzuak eta edertasuna, komunikazio aukerak, etb.

Hezkuntza munduko pertsona askorekin elkarlanean aritzen naizenez egunero, egun askotan izan zen Kilometroak hizpide gure artean, nire kuriositate pertsonala asetzearren ekital-

Abesbatza lehiaketa

Pontevedrako Camerata ad Libitum abesbatzak irabazi zuen Zumarragako Abesbatza Saria. Folklore atalean ere gali-ziarrak izan ziren irabazleak. Polifonia atalean, berriz, Iruñeko Sine Nomine abesbatza izan zen garailea. Iazko lehiaketa-zazpi abesbatzek parte hartu zuten.

Etxeberri auzoan obrak

Urrian Etxeberri auzoan egiten ari diren obrei hasiera eman zitzairen. Lehen fasean saneamendu sarea eta argiteria berritzen, telefono sarea lurrazpitik sartzen, arrapalak (ranpak) egiten, zoladura konpontzen, higigarriak berritzen, loratokiak txukuntzen eta aparkalekuak berrantolatzen ari dira. Ondoren, Zumarragako Udalak bidegorriaren beste aldean duen lursail batean, 36 aparkaleku eta aisialdirako gune bat egingo dira.

Laja eta Mikelen diskoa

Mikel Alustiza panderojoleak eta Iñaki Garmendia "Laja" trikitilariak "Eguzki begi" diskoa aurkeztu zuten iazko urrian. Juan Carlos Perezek zuzendu duen ekoizpenak giro herrikoiko hamalau abesti biltzen ditu. Mikel 13 urte besterik ez zituela hasi zen panderoa jotzen Zumarragako Trikitixan eta duela hiru urte, Landakanda bikotea gaixotu zela eta, Laja trikitilari azkoitiarraren deia jaso zuen. Orduetik, Zumarragako Trikitixarekin eta Lajarekin aritzen da, baita euskal kantagintza jorratzen duen herriko Ostebi taldearekin ere.



IRITZ IRITZ

diari eta herriari buruzko iritzia eskatzen nielarik. Askok, ingurukoak zirenez, eza-gutzen zuten jada herria; baina beste asko aspaldiko partez, eta lehendabiziko aldiz bat baino gehiago, joan ziren Urretxu-Zumarragara.

Denek aipatzen zuten herriak izandako aldaketa handia, kale eta etxe askok berri itxura zutela eta gogoratzen zuten Urretxu-Zumarragarekin erlazio gutxi zuela bertan ikusitakoak. Santa Barbara eta Antioien edertasuna, Iparragirre plaza, tren geltoki ingurua, Eliz-kale, Bidegorria, Labeaga kalea... ziren jendeak aipatzen zituen lekuetako

asko, Kilometroaken antolakuntzak ezarritako aisialdi guneetat gain herriak eskeintzen zituen aukera desberdinez harriturik. Hitz gutxitan, espero ez zuten Urretxu bat eta Zumarraga bat topatu zuten bertaratutako askok, Euskal Herriak dituen txoko bisitagarrien zerrendara gehitu beharreko Gipuzkoako zati bat bihurtu zelarik askorentzat gure herria.

Kilometroak bezalako ekitaldi bat antolatzeak suposatzen dituen buruko minak eta buru haustek merezi dute baldin eta ekitaldiaren helburuak betetzen badira, zein herriaren irudia leku onean uztea lortzen bada. Helburuez ezin naiz

mintzo, bai, ordea, Urretxu eta Zumarragak eman duten itxura ezin hobez. Ez da gutxi lortutakoa, hain zuzen, Urola ibaiaren jaiolekutik gertu mendi artean dauden bi herri horien edertasunaren aldarrikapena. Zorionak Urretxuar eta Zumarragatar orori, azken finean denek lorpena baita.

Martin Aranburu
Eusko Legebiltzarkidea

Buzkantza lehiaketako saria Ordiziara joan zen

Azaroko lehen igandean, azken urteotan ohi-tura den bezala, Zumarragako XX. Buzkantza Lehiaketa, "Jose Maria Busca Isusiren Omenezko XVII.a", izan zen. Lehiaketan 7 odolkgilek parte hartu zuten eta irabazlea Ordiziako Juan Mujika izan zen. Bigarren saria Jesus Mari Debak irabazi zuen eta aurkezpen onenari ematen zaion saria ere odolkgile honentzat izan zen. Ohitura den legez, artisau lanen erakusketa eta haurrentzako tailerrak ere izan ziren. Ekitaldirik arrakastatsue-na Igor Etxaniz "Kinttela" azpeitiarrak eskaini zuen hezitako zaldien erakustaldia izan zen.

"Musti"ren eta bere famiariaren aldeko ekitaldiak

Urolako, Realeko, Alaveseko eta Deporreko jokalaria ohia eta Urolako entrenatzailea den "Musti"ri eta bere famiari animoak emateko asmoz, Errealeko Jokalari Ohien Elkarteak eta Urolak hainbat ekitaldi antolatu zituzten azarorako.

Azaroren 19an, solasaldia izan zen Zumarragako Zelai-Arizti aretoan. Bertan, Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Aranzabal Realeko jokalariek, Jon Andoni Goikoetxea jokalaria ohiak eta Urolan "Musti"ren entrenatzailea eta presidentea izan ziren Juanjo Aldama eta Anselmo Portillok parte hartu zuten. Moderatzaile lanetan Iñaki de Mujika Donostiako Herri Irratiko kazetari ezaguna aritu zen. Azaroren 23an, berriz, Realeko eta Real Madrileko veteranoek "Musti"ren eta bere famiariaren aldeko partida jokatu zuten Anoeta futbol zelaian. Futbol partida honetara milatik gora herritar joan ziren "Musti"ri eta bere famiari berotasuna eskaintzeko asmoz.

IRITZ IRITZ

Argi izpi gutxi "txapapotean"

2002. urtea joan zaigu. Zorionez edo zoritarrez. Urte sasoi honetan ohikoa da hitz politikak, itxaropenerako mezuak eta gisa horretako lelokeriak entzutea. Hala ere, munduaren egoerari gainbegiratu azkar bat botaz gero ez dugu pozik ego-terako arrazoi askorik.

Esaterako, Iraken aurkako gerra baten atarian gaude. Irakek masa suntsipenerako armak dituela dio George W. Bush enperadoreak. Orain arte, berak bidalitako inspektoreek (CIAren agente-ak) ez dituzte aipatu armak aurkitu. Ez dakit Saddam Husseinek arma mota horiek dituen. Hala ere, Bushek badituela jakin badakigu. Bonbardeatu dezagun AEB!!! Kontuak kontu, inozoenak ere badaki Iraken aurkako gerraren arrazoa petrolio dela. Kapitalismoa esnea agortzen ari zaion behia bezalakoa da. Eta azken esne tantak erori bitartean titia estutzen jarraituko dute mundu honetako

agintariek. Gerra otsaileko hirugarren asterako dago iragarrita. Hala ere, apur bat atzeratu egingo dela dirudi. Izan ere, AEBtako zein Erresuma Batuko agintariek 150.000 soldadu mobilizatu behar dituzte, eta horretarako denbora beharko dute.

Ekialde Hurbileko etorkizunarekin jarraituz, aurtengoa iragan urtean bezain beltza izango da. Israelgo estatu sionistak Palestina zapaltzen eta suntsitzen jarraituko du. Sharonek Holokaustorekin jarraituko du Palestinan. Agintari ultraeskuindarrari berdin zaizkio Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak. Gaza eta Zisjordanian kokagune berriak ezartzen jarraituko du Israeliek, okupazio militarrek jarraituko du, Palestinako herriaren hondamendi ekonomiko, ekologiko eta soziala bultzatzen segiko du. Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunaren salbuespenarekin, Bigarren Mundu Gerra judutarren aldeko faxista eta judutarren aurkako faxisten arteko gerra izan zen. Irabazleak judutarren aldeko faxistak -Churchillen Erresuma Batua, Ameriketako Estatu Batuak eta Israel (nahiz eta estatua 1948. urtean

sortu)- izan ziren. Hain zuzen ere, hiru herrialde horiek dira orain holokaustoa mundu zabalean burutzen duten herrialde nagusiak.

Iragan urtea ere beltza izan zen oso, Afrikan. Dena den, jakina izanagatik ez da albistea. Hiesa zabaltzen jarraitzen du, eta herrialde aberatsek gaitzarekin amaitzeko borondaterik ez dute. Hiesa egun gure artean nahiko kontrolatuta dagoen arazoa da. Hori dela eta, jada ez gaitu arduratzen. Gurutze Gorriak ohartarazi du eritasunaren erruz Afrikan belau-naldi oso bat gal daitekela. Bestalde, kontinenteko hegoaldeko herrialde gehienak azken hamarkadetakoa lehorterik larrienak pairatzen ari dira. A! Eta Europak kontinenteaz egin zuen zatiketa negargarriaren erruz milaka lagun hiltzen jarraitu zuten 2002an gerretan. A! Eta herrialde aberatsetako multinazionalak gerrak sortzen jarraitu zuten (Angola, Boli Kosta...) A! Eta...

Horrenbeste itzalen artean, iragan urteak itxaropenerako lehio bat zabaldu zigun. Hego Amerika. Venezuelan tinko darrai Hugo Chavezen gobernu

Josemari Alemanen erakusketa

Donostian bizi den Josemari Aleman Amundarain marrazkilaria herritarrak "Gipuzkronikak" izenburua duen liburua kaleratu zuen. Bertan, azken urteotan Gipuzkoan emandako hainbat gertakariaren inguruan egindako marrazkiak eta testu laburrak aurki ditzakegu. "Gipuzkronikak"-erako egindako marrazkiekin erakusketa osatu du eta, Kutzaren laguntzaz, marrazki hauek herriz herri dabilta azken hilabeteotan. Erakusketa hau azaroan Itarte Etxean ikusgai izan genuen.

Agrymin-en urteurrena

Azaroaren 3an Agrymin enpresako langileek enpresaren sorreraren 50. urteurrena ospatu zuten. Hasteko, Antion meza ospatu zuten eta, ondoren, bazkaria izan zuten. Enpresa hau 1952ko azaroaren 1ean sortu zen eta hasieratik Gonzalez de Audikana-Mujika familiaren esku izan da.

Pabiloi berriak

Azaroaren 8an Urola Garaiko Industrialdeak Argixaoko 10.304 m2 dituzten pabiloi berriak inauguratu zituen. Inaugurazio ekitaldian Josu Jon Imaz Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua, Jose Mari Aldanondo Foru Aldundiko Ekonomia zuzendaria, Aitor Gabilondo alkatea eta Anton Zubiaurre Sprilur-eko zuzendari nagusia izan ziren.

IRITZ IRTZ

demokratikoak. Nazka ematen du haren aurka zabaltzen ari diren gezurrak entzutea. Ia bi hilabeteko greba orokorra pairatzen ari omen da herrialdea. Gezurra. Petrolioaren greba da. Hiriburuan, Caracasen, soilik ekialdeko auzoetan, hots, aberatsen auzoetan du eragina grebak. Gainera, Chavezen jarrera ezin da zintzoagoa izan. Mark Wisbrot kazetariak The Washington Post egunkarian dioen bezela, "AEBetan halako greba bat —ekonomiari kalte masiboa eragingo liokeena eta langile publiko eta pribatuak eskakizun politikoak egingo lituzketena— legez kanpoko deklaratuak zuketena. Parte-hartzaileak kanporatuak zitezkeen eta buruzagiak —grebarekin segituz gero— epaitegien aginduz kartzelaratuta". Auzitegiek ez zituzten zigortu iragan apirilaren 11n Venezuelaren estatu kolpea jo zuten militarrek. Egun kalean daude. Eta Chavezek epaileen erabakia onartu du. Hori pentsaezina izango litzateke munduko agintarien %95ean. Argi dago zein den Venezuelaren arazo nagusia. Petrolio asko izatea (Munduko laurgarren herrialde esportatzailea da, eta

AEBri petrolio gehien saltzen dion bigarren estatua). Duela hogeitau urte petrolioaren diruaren %80 estatuarentzat zen, eta gainontzekoa kontu korronte pribatuetan galtzen zen. Egun kontrakoa gertatzen da, eta diruaren %80 inork ez dakien eskuetan galtzen da. Chavezek joera horrekin amaitu nahi izan zuenean estatu kolpea egin zioten. 1973. urteko Txileko egoera datorkit gogora. Salvador Allende kobrea nazionalizatu izan nahi zuenean AEBk hil eta Augusto Pinochet Ugarte jarri zuten boterean.

Hala ere, Chavez ez da itxaropenareko ahots bakarra Hegoamerikan. Hor daude Lula (Brasil) eta Lucio Gutierrezen (Ekuador) gobernu berriak. Ez dute lan erraza izango, batez ere Lulak. Izan ere, Brasilgo oligarkia indartsuak tentuz jarraituko du bere gestioa. Oligarkak Brasilgo hiritarren %5 besterik ez izan arren herrialdeko aberastasunen %50aren jabe dira. Bestalde, Brasilen Europako Batasunaren hedadura duten lur sailak kontrolatzen dituzten 197 latifundista daude. Lulak jakin badaki aberats gutxi horien interesak ikutzen dituen uanean

estatua deusezteari ekingo diotela. Izan ere, Hegoamerikako arazorik nagusia esaldi batean laburtzen da: agintariak ez dute ekonomia kontrolatzen. Hori Ameriketako Estatu Batuetako zein Europako multinazionalak eta bankuek egiten dute.

Azkenik gure etxeari errebaso azkar bat egiteko ordua da. 2002. urtean ez zen konpondu gure artean bizi dugun gatazka politikoa. Eta 2003an ere ez da konponduko. Egia esan ez dut sinisten hitz handietan, egunean eguneroko lan isilean eta gauza txikitik baizik. Zesarren emazterik gertatzen zitzaien gauza bera gertatzen zaigu. Ez da soilik zintzoa izan behar, itxura ere eman behar da. Eta gure herri maite honetan bada zintzoa ez den agintaririk. Eta badira itxura ere ematen ez dutenak.

Irakurle, 2002.. urtea "txapapotez" beterik egon da mundu osoan. Hala ere, 2003a ez da askoz hobea izango. Ziur.

Gorka Quevedo
Kazetaria

Aitor Gonzalez herrian

Alacanten bizi baino Urretxu-Zumarragan jaio zen Aitor Gonzalez txirrundularia herrian izan zen Gabonetan bere familia bisitatzen. Urretxuko Udalak ongietorria egin zion udaletxean abenduaren 27an. Pello Gonzalez alkateak eskultura bat eta Iparragirreri buruzko bi liburu oparitu zizkion herritarren izenean. Aitorrek eskerrak eman zizkien denboraldian zehar animoak eman dizkieten herritarrei eta Vueltako urrezko maillot bat Urretxuko Udaletxera bidaliko zuela agindu zuen.



Foru Aldundiaren dirulaguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza sailak Urretxu eta Zumarragako hainbat hirigintza ekimenentzat dirulaguntza garrantzitsua eman behar du. Ekimen hauen eta jasoko duten dirulaguntzen berri emateko, hiru herrietako alkateek, Koruko Aizarna Hirigintza Diputatuak eta Luis Olabide Hirigintza Zuzendariak prentsaurrekoa eskaini zuten abenduaren 23an Urretxuko Udaletxean. Urretxuko Geltokien auzoan egingo den obrak (aparkalekua, parke handi bat eta Mugitegi industrialdearen irteeran errotonda) 300.000 euroko laguntza jasoko du eta Zumarragako Etxeberri auzoan egiten ari diren obrek, berriz, 380.000 euro.

Aldaketaren 25. urteurrena

Urretxuko Aldaketa filatelia eta numismatika elkarteak 25 urte bete ditu 2002an. Hori dela eta, abenduan txanpon erakusketa antolatu zuten abenduan. Erakusketa honetan Iberiar penintsulan erromatarren garaitik gaurdaino erabili diren hainbat txanpon izan ziren ikusgai.

Aldaketa inguruko bildumazaleek Urretxuko udaletxean egindako bilera baten ostean sortu zen. Elkartea bildumazaleen arteko harremana sustatzeko helburuarekin jaio zen, honela elkartrukea, informazio bilketa eta zaletasuna bultzatzeko asmoz. Egun Aldaketako kideak larunbatero biltzen dira Urretxuko liburutegian eta urtero erakusketak antolatzen dituzte.

IRITZIZ IRITZI

Nor ari da ispilu berri bat egiten?

Antton Luku idazleak behin esaten zue-nez Euskal Herria mila zatitan puskatutako ispilu bat da, honela herritar / alderdi / lurralde bakoitzak bere pusketa hartu du eta errealitatea ispilu zati horretatik ikusten du soilik ispiluaren osotasuna ezagutu

gabe. Eta beldurrik gabe esan dezaket aurtan ispilua are gehiago txikitu dela / dutela.

Gehienok politikari aluari egotziko diogu erru guztia, gatazka politikoari, baina bi politka eredu bereizten hasi behar dugula iruditzen zait. Letra handiz egiten den Politika eta letra larriz egiten den politika. Eta igoal zait, banaketa hau berdin-berdin balio egin daiteke ekonomian, enpresan, Udal mailan nola kultur-

gintzan.

Maiuskulaz egiten den Politika geroz eta indar gehiago hartzen ari da. Makro-egitasmo, sekula betetzen ez diren plan estrategiko eta power point bidezko aurkezpen kanpainez ari naiz. Hau da, gure gurek gizartearen egoera diagnostikatu ondoren sendabidea adierazteko erabiltzen dituzten makilaje eta marketing-planez ari naiz, askotan sendabidea gaixotasuna baino okerragoa dela kontu-

Gazte Lokalaren inaugurazioa

Abenduaren 5ean Gazte Lokala inauguratu zen Zintzo-Mintzok duen egoitzan. Lokal hau 12 urtetik 16 urte bitarteko gazteek erabili ahal dute, bi baldintza hutsekin: bertako jarduna oro euskara hutsean izatea eta pertsoneri eta bertako materialei zor zaien errespetua gordetzea. Bertan, gazteek, lagunekin solasean lasai egoteko, jokuan aritzeko, gustuko musika entzuteko, ordenagailuak eta internet erabiltzeko, ekitaldiak antolatzeko, lagunak egiteko... aukera dute. Oraingoan, Gazte Lokalak ostiraletan 6etatik 8etara eta larunbat eta igandeetan 4etatik 8etara irekiko ditu ateak. Gabonetako eta Aste Santuko oporretan egunero irekita izango da 4etatik 8etara. Gazte Lokala arrakasta bikaina izaten ari da. Izan ere, jada ehundik gora dira bertako bazkide egin diren gaztetxoak eta astebururo (Gabonetan, egunero) koadrila ugari biltzen dira bertan.



Ostadarri saria

Abenduaren 20an Donostiako Kursalaren izan zen ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Ostadar Mendi Taldeari Felix Iñurrategi saria eman zion euskararen erabileraren alde egiten duen lanagatik. Ostadarrek duela 10 urte Zintzo-Mintzorekin euskararen erabilera bultzatzeko akordioa sinatu zuen eta, ordutik, borondateari eta lan onari esker, euskararen erabilera gaztelaren pare jartzea lortu du. Urretxu-Zumarragako mendi taldea Euskal Herriko mendi talde ezagunenetako bat bihurtu da bere web orri bikainari esker. 2000. urtean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturguneak euskarazko web-gune osatuenean aurkezpenak antolatu zituen eta hautatuetakoa bat ostadar.org web-gunea izan zen.

IRITZIZ IRITZI

ratu gabe. Eurak dira pentsatzen dutenak eta gu herritarrok xume-xume euren asmoak akritikoki bete behar ditugunok. Bere etxeari zuzendutako esames hutsalak besterik ez dira, bere jende eta ingurunea elikatzeko egiten direnak. Bakoitza bere ispilu zatiari igurtzi eta igurtzi erabat itsutu arte bere Alderdi, Lanpostu edo Legearentzat lanean.

Minuskulaz egiten den politika, berriz, hitzaren esanahi sakonari lotzen

zaio, hau da, gizartea antolatu eta bideratzeko artea. Hau maila mikroan ari diren elkarte eta erakundeekin lotzen dut. Aurten izan dugu adibide esanguratsurik eta berauek aipatu nahi nituzke: Bertso Eskola, Ostadar, Goierrri, Zintzo Mintzoren proiektu berriak, Butak 21, Gaztelekua, Ikastola-Kilometroak eta abar.... Talde horiek mantendu gaituzte aurten bizirik. Izan ere, esparru irekiak, gertukoak eta partehartzaileak sortu dituzte mendian,

euskalgintzan, kulturgintzan... Koiuntura politikoari begira egon gabe, modu positibo eta eraikitzailean, elkarlanean, esparru ireki eta autoeratuak sortzen ari diren guztiei animo. Kristal txikiak bilduz eta elkar itsatsiz denok kabituko garen ispilu berri bat sortzen ari diren guztiei, jarrai horrela.

Josu Aztiria
Kmk 2002ko antolakuntzako liberatua

Datorrena okerragoa izango da

Bi akats ditu lerro hauei jarri diedan izenburuak: ezkorra da eta beste norbait kendutakoa da. Julio Ibarri kendu diot, hala zioen eta, duela aste pare bat Zazpikan egin zioten elkarrizketan. Euskal Herrian 2002 nola joan den ikusita, Ibarri ez dio traza onik hartzen 2003ri, eta neuk ere ez.

Jakina, urte baten balorazioa egiteko orduan, hauteskundeena edo futbol partida batena egiten den bezalaxe, bakoitzak bere posiziotik hitz egiten du. Athletic-ek 3-0 galtzen badu, niretzat desastre bat izango da, baina irabazidiona Real Madrid bada, madrildarrak pozik izango dira.

Bada berdin gure bi herriotako batean bizi zaren abertzalea bazara; joan den urtean txarra izan dela esan behar. Zergatik? 2002. urte hasieran libre ziren zure lau herrikide gazte kartzelan dauzkatelako orain. Bai, beste gertakari asko izan daitezke kontuan

urteko balorazioa egiteko orduan, esaterako Kilometroak arrakastatsua, edo Gainzuri eskolako lanen hasiera, edo Beasain-Durango errepideko lanean aurreratzea, edo zine-kluba berriro martxan izatea, baina lau herrikide giltzapean daudela jakiteak hori guztia iluntzen du.

Ez dut, ordea, neure burua engainatzen: badakidan bezala -gehienoi poza eman zigun arren- bati baino gehiagori amorrua emango ziola hainbeste euskaltzale gure kaleetan gora eta behera festa giroan ikusteak Kilometroetan, badakit hainbati poza ematen diola lau herrikide hauek preso eta urrutik egoteak, niri ez bezala. Bada hori, bakoitzak bere posiziotik hitz egiten duela. Eta bakoitzak bere iritzia izango du lau herrikide hauen jarduerari buruz, batzuek guztiz onartuko dute, beste batzuek zeharo errefusatuko eta beste batzuek pentsatuko dute sufrimendu honek bukaerarik ez duela inoiz izango. Presoak eta iheslariak izatea, atxilotuak izatea, joan diren Gabonetan bezala gurasoak pankarta bati heltzen ikusi behar izatea, gure patua ote den.

Ez, ez da patua, ezta kasualitatea edo ezbehar hutsa ere. Topiko bihurtu den esaldia da, baina errepikatu egin-

go dut, egia da eta: hau guztia konpondu gabeko gatazka baten ondorio ia ezinbestekoa da. Belaunaldiz belaunaldi pasatzen ari den lekuko madarikatua, gorabeherekin, bigunaldiak eta gogorraldiekin, baina inoiz eten gabeko katea. Eta txarrena dena, izenburura itzuliz, eteteko itxurarik ez duena.

Ni ordezkaten ninduen zinegotzia kartzelan sartu zuten iaz, nik botua eman diodan alderdia legez kanpo jartzera doaz aurreten. Eta, beharbada zuk, irakurle, botua eman zenion zinegotzia, bizkarzainekin dabil gau eta egun. Bakoitzari bereak emango dio min eta badira bost inporta ez zaienak, ez zure zinegotzia eta ez nirea, ez bataren eta ez bestearen sufrimendua ez zaielako batere axola. Horiek dira egoera hau behin-betirako konpondu dadin ahalegin gutxien egingo dutenak.

Herri desgraziatua gara gero: jakin benetako konponbidea aurkitzeko zuztarrera joan behar dela, jakin egurra ematearekin ez dela ezer konponduko, eta halere egurra besterik ez dugu sumatzen etorkizun hurbilean.

Gotzon Aranburu
Kazetaria

BILINTX

LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN


-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA





Egin zaitez Otamotzeko harpidedun!

Azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldizkarirako **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldizkaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2003. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizkigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

-6 euro -9 euro -12 euro


Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria:

ESKOLA PUBLIKOA

etorkizunerako aukera



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: info.gainzuri@educanet.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Izena emateko epea: otsailaren 3tik 14ra